



**EBAZPENA**  
**LANBIDE-HEZIKETAKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL**  
**AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE-HEZIKETAKO**  
**IKASTETXE PUBLIKO INTEGRATUEN 2023-2024**  
**IKASTURTEKO ANTOLAMENDUARI BURUZKOA**



Ebazpen honen helburua da Lanbide Heziketako sailburuordearen eskumeneko lanbide-heziketako ikastetxe publiko integratuen antolamendu eta funtzionamendurako irizpideak ezartzea.

Ebazpen hau ikastetxe publiko integratuetan garatzen diren lanbide-heziketako irakaskuntzei eta jarduera eta zerbitzuei aplikatuko zaie.

Ikastetxeko zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu, ebazpen honen eduki osoa ikastetxeko irakasle guzti-guztiek ezagutzen dutela ziurtatzeko.

Halaber, legez Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen Gizarte Kontseilua-aitortzen zaizkien aginpideak eta ebazpen honek azaltzen dituen gaiak kontuan izanik, ikastetxe integratuen bakoitzeko zuzendaritza-taldeak ebazpen honen edukiaren berri emango dio aipatutako Gizarte Kontseiluari, 2023-2024 ikasturteko lehen hiruhilekoan egingo den lehenengo bileran.



## AURKIBIDEA

### SARRERA

#### I.- LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUEN JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO TRESNAK

##### 1.- Ikastetxe integratuen helburuak eta jarduera-ildoak

- A).- Plan estrategikoa (Proiektu Estrategikoa)
- B).- Urteko plana (Plan Exekutiboa)

##### 2.- Ikastetxe integratuko planak

- A).- Sailen jarduera-planak
- B).- Irakasleen prestakuntzarako urteko plana
- C).- Lanbide-orientazioko plana

##### 3.- Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA)

#### II.-LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUEN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA.

##### 1.- Gobernu-, koordinazio- eta partaidetza-organoak ikastetxe integratuetan

###### a).- Gobernu-organoak (zuzendaritza-taldea)

###### a1).- Pertsona bakarreko organoak

- Zuzendaria
- Ikasketaburua
- Idazkaria
- Administraria

###### a2).- Zuzendaritza-karguen ondokoak

**b).- Koordinazio-organoak eta sailak**

Koordinazioko Batzorde Teknikoa  
Sail espezifikoak eta zeharkakoak

**c).- Partaidetza-organoak**

Gizarte Kontseilua  
Irakasleen klaustroa

**2.- Antolamendu-neurriak****2.1.- Irakasleen antolamenduarekin lotutako alderdiak**

- 1.- Irakaskuntza-jardueraren antolamendua
- 2.- Ikastetxeko eskola-egutegia
- 3.- Irakasleen lanaldia
- 4.- Zuzendaritza-karguak eta bestelako karguak
- 5.- Zuzendaritza-karguetarako eta bestelako karguetarako ordu-murrizketa
- 6.- Irakasleen bertaratzea
- 7.- Irakasleen gogobetetasun-mailak

**2.2.- Funtzionamendu-araubidea**

- 1.- Sailak
- 2.- Hezkuntza Arreta (guardiak)
- 3.- Tutoretzak
- 4.- Hutsegiteen kontrola
- 5.- Familiekiko bilerak
- 6.- Praktiketako unibertsitate-ikasleen tutoretza
- 7.- Lanean edo langabezian dauden pertsonak kualifikatzeko eta birkualifikatzeko lanbide-heziketa.

**2.3. Ikasleen antolamenduarekin lotutako alderdiak**

- 1.- Eskola-ordutegia
- 2.- Ikastetxetik kanpoko jarduerak
- 3.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
- 4.- Ikasleak eskoletara joatea
- 5.- Goi-mailako kiroleko ikasleak eskoletara joatea
- 6.- Ezohiko curriculum-neurriak eskatzea

**2.4.- Ikasleen ebaluazioarekin lotutako alderdiak**

- 1.- Ebaluazio-bilerak
- 2.- Eskola-errendimendua objetiboki baloratua izateko eskubidea
- 3.- HLO heziketa-zikloak, lehenengo ikasturte komuna dutenak
- 4.- Unibertsitaterako sarbide-probak
- 5.- Proiektu-modulua

**2.5.- Lanbide-heziketa Duala eta LP modulua.****2.6.-Ikasteko metodologia aurreratuak. Erronketan Oinarritutako Elkarlaneko Ikaskuntzaren Eredua.**

- 1.- Hartzaileak.
- 2.- Ezaugarriak

**2.7.- Lanbide Heziketako Espezializazio Kurtsoak.**

- 1.- Xedea
- 2.- Plangintza.
- 3.- Ezaugarriak

**III.- IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA PLAN EXEKUTIBOAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN EKINTZETARAKO.**

**IV.- OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA IKASTETXEETAN.**

**V.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAREN ARAUDIA.**



## SARRERA

Abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuaren helburua da lanbide-heziketako ikastetxe integratuen oinarriko baldintzak arautzea, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezarritakoa garatuz.

Apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuak, aipatu errege-dekretuan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen ditu, eta horiek pertsonen prestakuntza-premia aldakorrei erantzuteko gai diren instituzio gisa ulertzen ditu, eta gai izan behar dute, halaber, hainbat zerbitzu eta jarduera eskaintzeko, hain zuzen ere zerikusia dutenak prestakuntzarekin, informazio eta orientazioarekin, lan-eskarmentu bidez edo/eta prestakuntza-bide ez formalak direla medio lortutako lanbide-kompetentzien ebaluazio edo akreditazioekin eta, oro har, enplegarritasuna eta herritarrek ekiteko eta berritzeko duten gaitasuna hobetzearekin.

Era berean, Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legea onartu izana erreferentzia-puntu garrantzitsua da. Lege horretan, lanbide-heziketaren eredu konbinatuari buruzko xedapen garrantzitsuak jasotzen dira, non Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak definitutako lanbide-hezkuntza integratuaren eremua ez ezik, berrikuntza aplikatuari eta ekintzailtzari buruzko ikaskuntzak ere txertatu diren; horrek guztiak ahalbidetuko digu teknologien eta produkzio-sistemen eboluzio azkarrari aurre egitea; eboluzio azkar horrek berekin dakar eguneratze behar etengabea eta enplegarritasuna hobetzeko eta mantentzeko pertsonen behar dituzten kompetentziak handitzea.

Aipatutako 4/2018 Legeak honako hau dio ekintzailtzaren ikaskuntza-jardueraz: "Ekintzailtzaren ikaskuntza-jarduerak hasierako lanbide-heziketan edo enplegurako heziketan dihardutenentzako dira. Jarduera horien bidez, hau sustatu nahi da pertsona horiengan: ekimen-sena eta beren lanbideari lotutako enpresa-proiektu berriei – banakakoei zein kolektiboei– ekiteko gaitasuna. Lehentasunezkoa izango da hori industria-inguruneetan eta estrategikotzat jotzen diren gainerako sektoreetan, enpresak sortzea lagundu nahi denez gero. Ekintzailtzaren ikaskuntza-proiektuetan saiatuko da kompetentzia berriak garatzen ikasleen artean, sormenezkoak zein kontzeptuzkoak, ekintzailtzaren kultura sustatzera orientatuak eta jarduera erreal baten arabera finkatutako esperientzia praktikoetan oinarrituta antolatutak. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren



arloan eskumena duen sailak programa multidimentsionalak diseinatzea eta abiaraztea sustatuko du, programa horietan uztartu egingo baitira proiektuak garatzeko ikaskuntza eta produkzio-sektoreetako eragile ekonomikoen esperientzia. Eta, hartara, ikaskuntza-konpetentziak garatzeko eremu esperimentalak sortuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak honako aukera hau ere sustatuko du: lanbide-heziketako ikastetxeek enpresa-proiektuen garapena eta enpresen sorkuntza bultzatzea hainbat sektoretan. Proiektu horien ezaugarriak izango dira: berrikuntza, jasangarritasuna, konpromiso soziala eta pertsonetan oinarritutako antolakuntza-egiturak. Hartara, posible izango da euskal produkzio-sarea birsortzea, modernizatzea eta handitzea. Arreta berezia eskainiko zaio eremu horretan irakasleek dituzten gaitasunak eta konpetentziak hobetzeari, eta, horretarako, irakasleengan ekintzailetzaren kulturaren oinarriak sustatuko dituzten ekintzak egingo dira.”

Aipatutako 4/2018 Legeak honako hau dio lanbide-heziketaren berrikuntza eta etengabeko prestakuntzaren sustapenez: “Lanbide-heziketaren berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko, ikastetxe publikoen antolamendu- eta kudeaketa-autonomia indartzeko mekanismoak garatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak, ikastetxe publikoak beren burua kudeatzeko gai izan daitezen, beren inguruneari lotuta, jarduerak eta proiektuak malgutasunez, arintasunez, fidagarritasunez eta eraginkortasunez garatzeko ahalmena izan dezaten. Horretarako, sail horrek hau sustatu behar du: lanbide-heziketako ikastetxeak ezagutza-unitate espezializatu modura egituratzea, eta sarean lan egitea, beste ikastetxe, enpresa eta organismo batzuekin elkar hartuta aritu daitezen, inguruan sortzen diren beharriari konponbidea emate aldera. Hala, kudeaketa-eredu berritzaileak sustatuko ditu ikastetxe horietan, eta sormena eta berrikuntza aplikatua ere indartuko du ikastetxeek garatuko dituzten funtsezko prozesuetan. Halaber, aurreko paragrafoetan adierazitakoa betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du bere menpeko lanbide-heziketako ikastetxeetan bestelako antolamendu-egitura espezifikokoak sortzeko, zentro horien strategiari, berrikuntzari eta operatibitateari buruzko esparruak sortzen ahalbidetuko dutenak. Antolamendu-egitura berri horiek, hezkuntza-zentroetan orokorrean ezarrita dauden antolamendu-egitura formal egonkorrez bestelakoek, aukera emango dute zentroetan egin ahal izateko organo eskudunek ezarritako ildo estrategikoekin bat datozen proiektuak. Antolamendu-egitura horien bidez, aukera egongo da irakasleak hainbat arlo espezifikotan biltzeko, orokorrean ezarritakoaz bestelako modu batean, eta



egitura berezi horiei proiektu jakin batzuk aurrera eraman ahal izateko eskatu ahal izango zaie.”

Eta lanbide-heziketako ikerketari buruz, honako hau jasotzen du aipatutako 4/2018 Legeak: “Lanbide-heziketako ikerketak, zuzenean edo zeharka, lagungarria izan behar du lanbide-heziketako euskal sistema bateratua garatzeko eta etengabe hobetzeko, nazioarteko proposamen aurreratuenei lotuta. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak lanbide-heziketaren arloko ikerketa bultzatuko du, sistemaren hobekuntza susta dadin eta lortutako guztiak honako honetan lagundu dezan: arlo hori nazioartean ikerketarako arlo espezifikotzat jotzen eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta bertako ikerlariak eremu horretan leku bat izaten. Lanbide-heziketako ikerketa harmonizatu beharko da ikaskuntza aurreratuei, ingurune digital berriei, sistema adimentsuei eta garapen jasangarri eta integratzaileari buruzko ikerketa orokorrarekin, baita enpresa-munduarekin ere, bereziki enpresa txiki eta ertainen munduarekin, hartarako erregelamenduz ezartzen diren tresnen bidez”.

Horregatik guztiagatik, ikastetxe bateratuek euren inguruko produkzio- eta prestakuntza-sektorea orientatzeko erreferenteak izan behar dute, lanbide-heziketako eskaintzak eginez eta eskuragarri dauden giza baliabideak eta materialak optimizatuz.

Helburu horiek betetzeko, ikastetxe bateratuek antolamendu-mailan autonomia eta malgutasuna izan behar dute, beren prestakuntza-eskaintza programatzean egokitzeko gaitasuna izan behar dute, eta lan-munduan mutazio teknologiko material eta antolakuntzako azkarren ondorioz gertatzen diren aldaketei erantzuna emateko gai izan behar dute; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-agenterik esanguratsuenen partaidetza bermatu behar dute.

Ondorioz, lanbide-heziketako ikastetxe integratuen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, antolamendu, funtzionamendu eta gobernu bereizia eman behar zaie, eta, horretarako, berriazko araudia behar dute, funtzionamendu-dinamika propioak gara ditzaten. Hala, beren gobernuarekin eta administrazioarekin lotutako alderdiak zehaztuko dituzte, bai eta ikastetxe horietako berezko prestakuntza-jarduerak modu berezian egiteko aukera emango dieten antolakuntza-mailako alderdiak ere.

2022-2025eko Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren misioa da giza garapen jasangarri eta inklusibo baterantz aurrera egitea, pertsonen talentua bultzatuz, ingurune produktibo, teknologiko, digital eta adimentsuago batetik eratorritako erronkei





erantzungo dieten ikaskuntza-eredu aurreratuetatik txertatuz eta EAEko Lanbide Heziketa pertsoneri beren enplegagarritasuna hobetzen eta EAEko enpresei lehiakortasun handiago baterantz aurrera egiten lagunduko dien eraldaketa- eta berrikuntza-eragile gisa sendotuz, betiere kontuan izanik inor ezin dela atzean geratu, eta Basque Country 2030 Agendaren ildotik garapen jasangarria indartuz eta sustatuz. Gainera, besteak beste, lanbide-heziketako ikastetxe integratuak LH 5.0 zentro integratu adimentsu batera aldatzea aurreikusten du, etengabeko ikaskuntza- eta berrikuntza-gaitasunarekin, etorkizunerako ikuspegiarekin eta lankidetzaren sareetako proiektuen garapenarekin, zeharkako ezagutza-arloetan integratutako irakasleekin, talde balioaniztunez osatuak.

62/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, lanbide-heziketako eskaintzak emateko eska daitezkeen baldintzak malgutzen dituena.

Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren xedea da lanbide-heziketako sistema bakar eta integratu bat eratzea eta antolatzea. Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 695/2023 Errege Dekretuaren xedea da martxoaren 31ko 3/2022 Legeak araututako Lanbide Heziketako sistema bakar eta integratu bat garatzea.

## **I.- LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUEN JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO TRESNAK**

### **1.- IKASTETXE INTEGRATUEN HELBURUAK ETA JARDUERA-ILDOAK**

#### **A).- Plan Estrategikoa (Proiektu estrategikoa)**

Apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuan ezarritakoa eta programatutako urteko helburuak betez, ikastetxe bateratuek ekonomia eta langileen kudeaketan, antolamenduan eta pedagogian autonomia dute. Horretarako, zuzendaritza-taldeak, ikastetxe publikoen kasuan, eta ikastetxearen titularrak, ikastetxe pribatuen kasuan, lanbide-heziketako ikastetxe bateratuetako partaidetza- eta gobernu-organoen lankidetzarekin, Ikastetxearen Proiektu Estrategikoa gauzatuko dute, beren agintaldiaren hasieran. Proiektu horrek Gizarte Kontseiluaren oniritzia eduki beharko du, eta, bertan, gutxienez aipatutako dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoa bete beharko da. Era berean, Barne Araubideko Araudia (AJA) jasoko da. Horrez gain, Bizikidetzaren eta Berdintasunerako Plana



eta Aniztasunarekiko Arretarako Plana ere jasoko dira. Ziklo bakoitzean erabiliko diren ezaugarri metodologikoen definizioa ere jaso beharko du.

Bestalde, Proiektu Estrategikoa funtsezko tresna da lanbide-heziketako ikastetxe integratuen ikuspegia, antolamendua eta planifikazioa ezartzeko orduan. Hainbat urtetako plana izango da. EAEko indarrean dagoen Lanbide-Heziketako Planean ezarritako gidalerroak, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren haien hedapena, kontuan hartu eta garatu behar ditu, eta, horrez gain, *Ikastetxearen Proiektu linguistikoa* ere jaso behar du. Bertan, ikaskuntzarekin eta hizkuntzen erabilerarekin lotutako alderdi guztiak planifikatuko dira, ikastetxeak ezarritako erabileraren arabera, dagokion testuinguru linguistikora egokituta. Proiektu hori prestatzeko, kontuan izan behar da hizkuntzak tresnak direla, ikusmolde metodologiko bat dagoela eta hizkuntzak osotasunean landu behar direla.

Proiektu Estrategikoa, halaber, ikastetxeko Gizarte Kontseiluak onartu eta berrikusi behar du, dagokion urteko irailaren 30a baino lehen, eta hezkuntzaren gaineko eskumena duen sailaren esku egongo da, ikastetxean bertan.

Lanbide-heziketako ikastetxe bateratu bakoitzean, eta ikastetxearen Proiektu Estrategikoaren ekintzen kalitatea bermatzeko, kalitate-helburuak sartuko dira 46/2014 Dekretuaren 7.2.d artikuluan adierazitako kalitatea kudeatzeko sisteman, hots, proiektu horren helburuekin zerikusia dutenak, eta, gutxienez, ikasleen laneratze-maila eta proiektuari lotutako erabiltzaileen eta enpresen gogobetetasun-maila ebaluatzen dutenak. (46/2014 Dekretua, 11.3 artikulua). Hori dela eta, ikasturte akademiko bakoitzerako, zuzendaritza-taldeak Proiektua berrikusiko du, eta, hala badagokio, atzemandako hobekuntza-arloak sartuko ditu. Ebaluazioaren emaitzak eta hobetzeko proposamen egokiak urte amaierako memorian jasoko dira.

## **B).- Urteko plana (Plan Exekutiboa)**

Bere *Proiektu Estrategikoaren* arabera, ikastetxe bateratuko zuzendaritza-taldeak, ikasturte bakoitzaren hasieran, *Ikastetxearen Plan Exekutiboa* egingo du. Bertan, ikasturte akademiko bakoitzerako lehentasunezko jarduera-lerroak jasoko dira: ikastetxearen eta sail bakoitzaren planifikazioari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko alderdiak; proiektuak, curriculuma, arauak eta adostutako eta onartutako jarduera-plan guztiak barne.

Gainera, Plan Exekutiboak honako hauek jaso beharko ditu, besteak beste:



- Gutxienez, genero-berdintasunarekin lotutako bi ekintza.
- Genero-indarkeria prebenitzeko ekintzak.
- Hezkidetzako irakasle arduraduna izendatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 34. artikulua 2. puntua betetzeko.
- Erroketan oinarritutako ikaskuntza-/lankidetzaren ereduaren garapen-maila edozein dela ere.

Ikastetxearen Plan Exekutiboak uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan, apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuak aldatua, edo hura ordezkatzeko duten arauetan ezarritakoaren arabera egindako eta onartutako aurrekontua ere jasoko du (67/2005 Dekretua, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzen duena).

## **2.- IKASTETXE INTEGRATUEN PLANAK**

### **A).- Sailen jardueraren plana**

Ikasturte bakoitzerako, ikastetxeko sailek beren kudeaketa-eremuko Plan Exekutiboan zehaztutakoaren arabera ezarriko dituzte lehentasuneko jarduerak (planifikazioa, antolamendua eta funtzionamendua):

- Testuinguruan kokatzea
- Prestakuntza-jarduerak, proiektuak eta garatu beharreko beste jarduerak batzuk
- Ikaskuntzan aldaketa metodologikoak inplementatzeko proposamenak, eta horiek gauzatzeko behar diren alderdi garrantzitsu guztien egokitzapena.
- Jarraipen-adierazleak eta helburuak, hartzailak, kudeaketa-prozedurak, aurreikusitako giza baliabideak eta bitarteko materialak
- Aurreikusitako jarduerak eta esperotako eragina



## B).- Irakasleen prestakuntzarako urteko plana

Aztertu dira irakasleen prestakuntza-beharrizanak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzan zehaztutako lerro estrategikoak, eta hobekuntza-planean atzemandako eta ikasturte amaierako memorian jasotako hobekuntza-arloak, eta, hori guztia kontuan hartuta, zuzendaritza-taldeak, kudeaketa-eremuak osatzen dituzten arduradunekin batera, ikastetxeko langileek egin behar duten prestakuntza zehaztuko dute, beren urteko planean. Nolanahi ere, ikastetxeek berrikuntza teknologikoaren, eraldaketa digitalaren eta ikaskuntza-metodologia aurreratuen arloko prestakuntza-prozesuei ekin beharko diete, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta ikastetxe integratuak berak bultzatuta, testuinguru berritzaile bat sortzeko.

Ebazpen honen xede den ikasturtean, lanbide-heziketako ikastetxeetako irakasle guztiek asteen ordubete izango dute, irakasleen prestakuntza-proiektuak garatzeko.

Lanbide-heziketaren eremuko prestakuntza-/berrikuntza-proiektuak Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren gidalerro egokietan xedatutakoaren arabera planteatuko dira.

Unean-unean atzemandako beharrizanekin lotuko dira irakasleen prestakuntza-jarduerak. Prestakuntza-plana eratuko dute ekintzok, eta ikastetxearen Plan Exekutiboan jasoko dira.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezarriko du prestakuntza-orduen planifikazioa, eta planifikazio hori ondore guztiekin bete beharko da.

Eraldaketa digitalaren barruan, beharrezkoa da irakaskuntzarako gaitasun digitala ziurtatzea, egiaztatzea eta aitortzea. Horretarako, Irakaskuntzako Konpetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparruan jasotako konpetentzia horiek egiaztatzeko prozedurak definitzeko prozesua hasi da, DigCompEdu irakasleen gaitasun digitalerako, Europako esparruan oinarrituta. Ikasturte honetarako helburua da Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetako irakasleek gaitasun horiek ezarritako mailan eskuratu ahal izateko behar den prestakuntza bultzatzea, Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren heldutasun-ereduaren gainean egindako neurketetan lortutako emaitzetan oinarrituta.



### **C).- Lanbide-informazio eta -orientazioko plana**

*Lanbide Informazioko eta Orientazioko Plana* lanbide-informazioko eta -orientazioko eta laguntza eta jarraipeneko ekintzen multzoa antolatzen duen egitura da, bai maila indibidualean, bai talde-mailan. Ekintza horiek lanbide-heziketa ikasten ari diren pertsoneri zuzenduta daude, bai graduak hasten dituztenei, bai enplegurako prestakuntza jasotzen dutenei edo beren gaitasunak ebaluatu nahi dituztenei – lan-esperientziaren bidez edo ikaskuntza ez-formalen bidez eskuratutak –, bai kualifikazioa hobetzeko interesa duen edozein pertsonari.

Ikasturte bakoitzerako, Lanbide Informazio eta Orientazio Sailaren arduradunak planaren lehentasunezko jarduera-lerroak ezarriko ditu:

- Helburuak (lanbide-heziketa, babesa eta jarraipena), hartzailleek behar izanzen arabera jorratuko direnak.
- Ikastetxeko eremu, programa eta profesionalek gauzatu beharreko ekintzak
- Ekintza horiek ikasturtean zehar egiteko plangintza.
- Jarraipenaren helburuak eta adierazleak, hartzailleak.
- Aurreikusitako jarduerak eta esperotako eragina.

### **3.- ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)**

Agiri honetan hauek jaso beharko dira, gutxienez:

- Ikastetxearen antolamendu-egituraren eta haren funtzionamenduaren definizioa.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetzaren eta elkarrekiko errespetua eta egoitzaren zein instalazioen erabilpen egokia bermatuko duten arauak.
- Ebaluazioen gaineko erreklamazioak egiteko araubidea.

**II.- LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUEN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA****1.- GOBERNU-, KOORDINAZIO- ETA PARTAIDETZA-ORGANOAK IKASTETXE INTEGRATUETAN**

Lanbide-heziketako ikastetxe bateratuek, dagozkien funtzioak garatu eta helburuak betearazteko, gobernu-, koordinazio- eta partaidetza-organoak edukiko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.


**a).- Gobernu-organoak****a.1) Pertsona bakarreko organoak**

Hona hemen pertsona bakarreko gobernu-organoak: zuzendaria, ikasketa-burua, idazkaria eta administraria. Lanbide Heziketako sailburuordeak izendatuko ditu horiek guztiak.

Kargu horietako bakoitzak garatu beharreko funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren 18., 19., 20. eta 21. artikuluetan (hurrenez hurren) deskribatutakoak izango dira, gutxienez. Ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) deskribatutako beste eginkizun batzuk esleitu ahal izango dizkie.

**a.2) Zuzendaritza-karguen albokoak.**

Lanbide Heziketako sailburuordeak, ikastetxe bateratuko zuzendariak proposatuta, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-karguetako albokoak izendatuko ditu. Kide horien kopurua ebazpen honen II.5.b atalean adierazten diren irizpideei jarraikiz zehaztuko da (Ikusi Gobernu Organoen Izendapena 1).



(Gobernu-organoen izendapena 1).



## b).- Koordinazio-organoak

b.1).- Koordinazioko Batzorde Teknikoa zuzendaritza-taldeak eta ikastetxeko sailtako buruek osatzen dute. Batzorde honetara klaustroko edozein kide joan ahal izango da (hitzarekin, baina botorik gabe), ikastetxeko zuzendariak horretarako deia egiten badio, eta, betiere, eztabaidatuko diren gaiek hala eskatzen badute.

### b.2).- Sail espezifikoak eta zeharkakoak

Lanbide-heziketako ikastetxe bateratuek, beren zerbitzuak antolatu, koordinatu eta emateko autonomiaz baliatuz, Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) aurreikusiak dituzten adina sail ezarri ahalko dituzte. Honela sailkatuko dira:

- Lanbide-arlo bakoitzaren Sail Espezifikoak.
- Zikloko Zeharkako Sailak.
- Ikastetxeko Zeharkako Sailak.

Departamentu-buruen administrazio-izendapenerako eta ordainsarirako, honako taula honetan adierazitako gehieneko departamentu-kopurua eratu ahal izango da:

IKASTETXEKO IRAKASLE KOPURUA	GEHIENEO SAIL-KOPURUA
13 irakasle baino gutxiago	3
13 eta 16 irakasle bitartean	4
17 eta 20 irakasle bitartean	5
21 eta 24 irakasle bitartean	6
25 eta 28 irakasle bitartean	7
29 eta 32 irakasle bitartean	8
33 eta 36 irakasle bitartean	9
37 eta 40 irakasle bitartean	10
41 eta 45 irakasle bitartean	11
46 eta 50 irakasle bitartean	12
51 eta 55 irakasle bitartean	13
56 eta 60 irakasle bitartean	14
61 eta 65 irakasle bitartean	15





66 eta 70 irakasle bitartean	16
71 eta 80 irakasle bitartean	17
81 eta 90 irakasle bitartean	18
91 eta 100 irakasle bitartean	19
100 irakasle baino gehiago	20

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 32. artikuluko 3. puntuan ezarritakoa oinarri hartuta, pixkanaka ezartzen ari da antolaketa-egitura berri bat lanbide-heziketako ikastetxe integratuetan, eta ikastetxe horiek LH 5.0 ikastetxe integratu adimendun bihurtzen ari dira. Zentro horiek antolaketa-arlo hauek izango dituzte: berrikuntza-arloa, estrategia-arloa eta arlo operatiboa. Arlo horiek dagozkien AJAetan jaso beharko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuak arautzen dituen dekretu berria argitaratu arte, sail berriak sortuko dira arlo horiei estaldura emateko. Sail berri horiek ez dira kontuan hartuko aurreko taulan ezarritako gehieneko sailak kalkulatzeko. Arlo horietako zuzendariak saileko burutzat hartuko dira administrazio-izendapenari eta ordainsariari dagokienez, lehen aipatutako dekretu berria argitaratu arte.

Nahitaez, Zikloko Zeharkako Departamentuen eta Ikastetxeko Zeharkako Departamentuen barruan, gutxienez, honako sail hauek eratu beharko dira:

**A) Antolaketa-egitura berria ezarrita ez duten LHko ikastetxe integratuak:**

- Ziklo Zeharkako Sailak:
  - Laneko Prestakuntza eta Orientabide Saila (FOL-EIE).
  - Hizkuntza-saila
- Ikastetxeko Zeharkako Sailak:
  - Lanbide-informazio eta -orientazioko saila.
  - Ikerketa eta berrikuntza aplikatuko saila.
  - Nazioartekotze-saila.

**B) LHko ikastetxe bateratuak, ezarritako antolaketa-egitura berriarekin (LH 5.0 ikastetxe integratu adimendunak):**

- Zikloko Zeharkako sailak:
  - Laneko Prestakuntza eta Orientabide Saila (FOL-EIE).



- Hizkuntza Saila
- Ikastetxeko zeharkako sailak:
  - Lanbide-informazio eta -orientazioko saila.
  - Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuena Saila, Berrikuntza Aplikatuaren arloari estaldura emango diona.
  - Estrategiaren arloari estaldura emango dion Estrategia Saila.
  - Arlo Operatiboari estaldura emango dion Ekintza Saila.
  - Nazioartekotze Saila

### **b.3).- Lanbide Informazio eta Orientazio Saila.**

Lanbide Informazio eta Orientazio Saila, ikastetxeko zuzendaritzak izendatutako saileko buruaren gidaritzapean, hura osatzen duten kideen esana entzun ondoren. Honakoak kudeatzeko ardura izango du:

- Ikastetxeko lanbide-orientazioko planaren proposamena egitea, zuzendaritza-taldeak onar dezan.
- Zerbitzu hauen hartzaileak beren ikasketetan eta lanbidean aurrera egitean edo gizartean zein bide hartu nahi duten erabakitzean protagonista izan daitezen sustatzea.
- Gaitasun profesionala ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurako orientazio, informazio, inskripzio, aholkularitza eta ebaluaziorako lanak koordinatzea.
- Lanbide-informazio eta -orientazioko zerbitzuaren arretarako egutegi-ordutegia ezartzea haren interesa duten pertsonentzat.

LPO-EES sailarekin lankidetzan aritzea, ikastetxean kultura ekintzailearen garapena bultzatzeko, bai eta enpresa-ekimenari laguntzea ere, batez ere ikastetxeko ikasleen eta ikasle ohien artean, ikastetxeak eta inguruko beste eragile batzuekin lankidetzan, beharrezkotzat jotzen dituen ekimen guztietan. Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean ere kultura ekintzailea bultzatzea.



### **c).- Partaidetza-organoak**

Hona hemen partaidetza-organoak: Gizarte Kontseilua eta irakasleen klaustroa. Organo horien funtzioak apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuan datoz; zehazki, 23. eta 24. artikuluetan, hurrenez hurren.

## **2.- ANTOLAMENDU-NEURRIAK**

### **2.1.- Irakasleen antolamenduarekin lotutako alderdiak**

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeak 36.f) artikuluan xedatzen duenez, zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara edo beste batzuetara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran. Horretarako, irakasgaiari buruzko arauak hartu behar ditu kontuan.

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza kudeatzeko lanak eta ordu-kreditua banatzea ikastetxearen Plan Exekutiboan proiektuen arduradunen artean.

### **1.- Irakaskuntza-jardueraren antolamendua.**

#### **a).- Gai eta zereginen espezialitateetako banaketa**

Berariaz zenbatuko dira espezialitateetako bakoitzari dagozkion dedikazio-orduak eta modulu profesional guztietako ordu guztiak, bai hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikaskuntzetan, bai enplegurako lanbide-heziketan, bai eta prestakuntza enpresa edo erakunde parekatuan, bai erregimen orokorreko lanbide-heziketa duala, bai erregimen intentsiboko prestakuntza duala koordinatzeko eta tutorizatzeko lanetan ere proiektuak eta beste ekintzak, ikastetxe bateratu bati dagozkion xedeei eta funtzioei erantzun ahal izateko (Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren 5. eta 6. artikulua, hurrenez hurren), eta irakasleei esleituko zaizkie, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan –uztailaren 17ko 665/2015 Errege Dekretuak aldatua– eta emandako irakaskuntzak arautzen dituzten oinarrizko arauetan ezarritako irizpideen arabera.



Irakasle guztiek ikastetxeko zuzeneko dedikazio arrunteko ordutegia osatu beharko dute, irakaskuntzarako edo esleitutako bestelako zereginetarako ezarritako gehieneko orduak gainditu gabe.

Espezialitate bateko irakasleek ezin badute osatu beren irakaste-ordutegia beren espezialitateko edo/eta saileko berezko moduluekin edo beste dedikazio-ordu batzuekin, ikastetxeko zuzendaritzak esleituko dizkio irakaste-ordutegia osatuta ez daukan pertsona horri beste espezialitate batzuetatik sobratzen diren orduak, baldin eta interesdunak esleitzen zaion zeregin edo irakaskuntza hori garatzeko konpetentzia baldin badauka. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariak erabaki beharko ditu irakasle bakoitzari esleituko dizkion gaiak, taldeak edo zereginak, irakasleak bere ordutegia osatu dezan.

Bestalde, ikasleen eskubidea errespetatzeko koherentzia didaktiko ahalik eta handiena bilatzeko oinarritzko irizpidea zaindu beharko da, bai hezkuntza-sistemako lanbide-heziketarako, bai enplegu-prestakuntzako ekimenerako, kalitatezko irakaskuntza jaso dezaten, eta irakasleen profila egokia izan dadin proiektuekin, ikastetxeko zerbitzuekin edo beste jarduera batzuekin lotutako zereginei erantzuteko.

Orokorrean, euskarazko lerroak dituzten ikastetxeetan, 2. hizkuntza-eskakizuna behar duten lanpostuetako irakasleek ezingo dute eman gaztelaniazko curriculumik, baldin eta beren espezialitateko euskarazko ordu guztiak beteta ez badaude. Ikastetxeak beharrik badu, IRALE programaren bidez edo Hezkuntza Sailak diruz lagundutako beste ikastaroren baten bidez 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten irakasleei euskarazko curriculumak emateko eska dakieke, haien lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna 1.a izanda ere.

Zuzendaritzaren, Enplegurako Lanbide Heziketako ekimenen, berrikuntza-proiektuen, ikas-ekinezko lanbide-heziketa dualaren kudeaketaren, lanbide-informazio eta orientazioko zerbitzuaren, eskumenak ebaluatu eta aitortzeko prozeduraren eta lehenetsunezko zatitza jotzen diren bestelako zereginak, ahal dela, ikastetxearen barruan egonkortasuna edo/eta behin betiko destinoa duten irakasleei esleituko zaizkie.

Saileko bertako irakasleek eta beste sail batzuetako irakasleek –ordutegi osoa ez dutenek– eman ezin dituzten irakaskuntza-orduekin eratuko dira ikasturte hasierako esleipen-prozesuan eskainiko diren lanpostuak. Lanpostu horiek eratzeko, honako irizpide honen arabera jardungo da: espezialitate ezberdinetako ahalik eta irakasgai



gutxien ematea, irakasgaietako curriculumak hurbil egotea eta irakasgai batean baino gehiagotan oso espezializazio-maila handia behar ez izatea.

## **b).- Taldeen esleipena**

Zuzendaritza-taldeak irakasle-taldeak antolatu behar ditu, eta irakasleak beren jardueri atxikitzeko irizpideak erabaki, ikasturte bakoitzaren hasieran, Plan Exekutiboan betetzen duela eta araudiak irakasleei egokitzen dizkien espezialitateak errespetatzen dituela bermatuta, eta aurreko atalean xedatutako irizpideei jarraituta.

Taldeak esleitzean, prestakuntzaren kalitatea bilatu eta oreka lortzeko irizpideak bete beharko dira.

Bigarren hezkuntzako irakasleak eta lanbide-heziketako teknikariak lanbide-zikloetako taldeen artean esleitzean, zuzendaritza-taldeak irizpideak ezarri ez dituenean edo espezialitate bereko irakasleen artean gaiak edo taldeak banatzeko adostasunik ez dagoenean, honako lehentasun-irizpide hauei jarraikiz antolatuko dira:

- 1.- Ikastetxean behin betiko lanpostua duten irakasleak, direla karrerako funtzionarioak, direla lan-kontratu mugagabeko irakasleak. Urriaren 10eko 198/2006 Dekretuaren hirugarren artikuluari jarraikiz aldatutako apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 16. artikuluan zehaztutako baremoaren arabera ordenatuko dira. Lan-kontratudun langileei baremo hori aplikatzean, lan-kontratu mugagabea duten langileen izaera karrerako funtzionarioaren izaeraren parekoa izango da.
- 2.- Ikastetxean behin betiko lanpostua ez duten karrerako irakasle funtzionarioak eta lan-kontratu mugagabedunak, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko lanpostu batean daudenak. Irakasle horiek aurreko taldean bezala ordenatu behar dira.
- 3.- Bitarteko irakasleak eta lan-kontratu mugagabea ez dutenak. Ikastetxean zerbitzuan egindako denboraren arabera ordenatuko dira.

Irakasleak sailkapen horren arabera ordenatuta, irakasle bakoitzak modulu bat aukeratu behar du txanda bakoitzean, kontuan izanik hari eskolak emateko gaitasunik duen bere espezialitate eta tituluaren eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren arabera.



Aukera egitean sailen bateko irakasleren bat falta bada, ikasketa-buruak aukeratu beharko du, haren izenean.

### **c).- Irakasleen ordutegia osatzeko modua**

Lanbide-heziketako ikastetxe integratuan emandako lanbide-heziketa osoko taldeak eta beste zeregin eta zerbitzu batzuetan emandako orduak esleitu ondoren, ikasketa-burutzak irakasleen ordutegiak prestatuko ditu, ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) jasota egon beharko duten irizpideen arabera.

Garrantzitsua da kontuan hartzea lanbide-heziketa dualeko ibilbide berrien ezarpena; izan ere, ibilbide horiek ezartzen diren ikastetxeko taldeetan, 1. mailako ikasleak enpresan prestatu beharko dira ikasturteko 1. hiru hilera amaitzen denetik aurrera. Horretarako, ordutegietan enpresan edo lantokian modulu praktikoa espezifikoa ematea aurreikusi behar dugu (ikus LH dualeko ibilbide berriak ezartzeari buruzko gida). Ikastetxeko zuzendaritzak ezarri beharko du nork egingo duen enpresan/lantokian prestakuntza egiten duen taldeko ikasleen jarraipena, enpresan jasotako prestakuntzak ezarritakoa betetzen duela bermatzeko.

Ordutegiak finkatzeko, ahal den neurrian, aipatutako irizpideen kontra egin gabe betiere, ikasketa-buruak bereziki kontuan hartu behar du ea irakasleek txanda batean baino gehiagotan (goizez, arratsaldean edo gauean) edo ikastetxe edo/eta eraikin batean baino gehiagotan eman behar duten curriculumak, halako egoerak irakasleei ahalik eta eragozpen gutxien sorrarazteko.

Nolanahi ere, ikastetxeko antolamendu-beharrizanak lehenetsiko dira beti irakasleen ordutegiak prestatzeko orduan.

### **d).- Ikastetxeko ordutegia onartzea eta argitara ematea**

Ikasketa-burutzak prestatu eta zuzendaritzak onartutako ordutegia bete behar dute, nahitaez, irakasleek. Ikastetxean bertan konpondu ezin den aldaketarik badago, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena eman behar du lehenik, eta Hezkuntzako lurralde-ordetzariak ebazpena ondoren.

Irakasleen ordutegiak agerian egon behar du beti, irakasle-gelako eta ikasketa-buruaren bulegoko iragarki-taletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste



leku batean. Halaber, zuzendaritzako kide bakoitza ikastetxean egongo den ordutegia jarri beharko da.

Informazio hori guztia ikastetxeko Gizarte Kontseiluaren eskura egon behar da, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

## **2.- Ikastetxeko eskola-egutegia**

Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, beren eskola-jarduerak antolatu eta planifikatzen dituzte. Denborak ezartzeko, ikasturte bakoitzeko eskola-egutegi bat finkatu beharra dago.

Egutegi hori kasuan kasuko lurralde ordezkarietzako pertsona arduradunek onartu beharko dute, ikasturte bakoitzean ikastetxeen eskola-egutegia egiteko kontuan hartu behar diren oinarrizko alderdiak ezartzen dituen arau zehatzaren arabera.

## **3.- Irakasleen lanaldia**

### **a).- Urteko lanaldia**

Lanaldi motak eta egutegia gorabehera, langileen dedikazioa 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honek arautzen du asteko lanaldia zenbat ordukoa den, eta nola banatuko diren curriculumak betetzeko orduak, ordutegi osagarria eta irakasleek ikastegian eman beharreko orduak.-

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanbaldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 34. artikuluan adierazitakoaren arabera, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 50. artikuluari jarraikiz, irakaskuntzako funtzionarioek urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko oporrak hartzeko eskubidea izango dute, edo, urtean zerbitzuan ematen duten denbora baxuagoa bada, proportzionalki egokituko litzaizkiekeen egunak. Oporrak kontatzeko, larunbata ez da egun balioduntzat joko.

Oporraldi hori abuztuan izango da urtero, eta inoiz ez da iraileko egunik hartuko.



Oporraldia eten ahal izango da gaixoaldi edo istripuren bat izanez gero. Interesdunak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du, egoera hori gaindituta, medikuak alta eman ondoren. Irakasleek, indarrean dauden araudia eta hitzarmenak betez, hartu beharko dituzte hartu gabeko oporrak.

## **b).- Asteko lanaldia**

### **b.1) dedikazio arrunta duten irakasleak**

Irakasleek ikastetxean izango duten zuzeneko dedikazio arrunta astean 30 ordukoa izango da. Horietatik 23 irakaskuntza-dedikaziokoak izango dira, besteak beste honako zereginak gauzatzeko: beren espezialitateari dagokion curriculum, tutoretza, hezkuntza-errefortzua, ikastetxeko hezkuntza-proiektuan aurreikusi diren eta ikasleen partaidetza duten proiektuetako jarduerak, guardia-lanak, ikasleen gurasoen arreta, taldeko ikasleekiko tutoretza zuzenaz besteko tutoretza-lanak, sail didaktikoaren bilerak eta koordinazio pedagogikoko beste bilera batzuk, prestakuntza-jarduerak, eta ikastetxeko hezkuntza-proiektua garatzen laguntzen duen jarduera oro.

Ikastetxeari zuzenean dedikatu beharreko gainerako 7 orduak erabiliko dira:

ikusi erantsita doan irakasleen lanaldiaren laburpen-taula.





IRAKASLEEN LANALDIAREN LABURPEN-TAULA					
1462 ORDU URTEKO LANALDIA	30 ORDU ASTEAN, IKASTETXEARI ZUZENEAN DEDIKATU BEHARREKOAK	23 ORDU ASTEAN, IKASTETXEAN EGON BEHARREKOAK	20 ORDU ASTEAN	17 ORDU ASTEAN	* HASIERAKO PRESTAKUNTZA * ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
				3 ORDU ASTEAN	* IKASLEEKIKO PROIEKTUAK (3 ordu)
			3 ORDU ASTEAN	* SAILAREN BILERAK * PRESTAKUNTZA * HEZKUNTZA-ARRETA (GUARDIAK)	
		7 ORDU ASTEAN JARDUERA OSAGARRIAK (ez dira nahitaez ikastetxean egon beharrekoak)	* SAILAREN JARDUERAK * BILERAK (KLAUSTROAK, IKASGUNEAK...) * EBALUAZIO-BATZARRAK * HIZKUNTZA-NORMALIZAZIORAKO BATZORDEA * IKASTETXE INTEGRATUEN HELBURUAK, XEDEAK ETA FUNTZIOAK: * KOMPETENTZIAK EBALUATU ETA EGIAZTATZEA * BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK * IKAS-EKINEZKO ARAUBIDEKO DUALA * NAZIOARTEKOTZEA * EKINTZAILTZA * LANBIDE-INFORMAZIOA ETA -ORIENTAZIOA * LAN-POLTSA * ....		
	URTEKO LANALDIA OSATU ARTEKO GAINERAKO ORDUAK	* PROGRAMAZIOAK PRESTATZEA * AZTERKETAK ZUZENTZEA * LANBIDE-HOBEKUNTZA * BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK			

Testuinguru horretan, lanbide-heziketako ikastetxe integratuen kasuan, jarduera osagarriak izango dira ikastetxeak abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretu korrelatiboan esleitzen dituen helburuak, xedeak eta funtzioak betetzeko garatuko dituen horiek guztiak. *“Jarduera osagarrien arloan”* esleitutako orduak ez dira nahitaez ikastetxean egon beharrekoak, salbu eta jarduera batek zenbait unetan hala eskatzen duenean.

Zentro guztiek bidaliko diote Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari, 2023ko azaroaren 1a baino lehen, zentroko lanen banaketa jasotzen duen laburpen-taula. Bertan, asteko 7 ordu horien eremuan egingo diren jardueretan irakasle bakoitzak parte nola hartuko duen (orduak) adieraziko da. Dokumentu hori informazioa emateko izango da aipatutako zuzendaritzarentzat, eta ikasturte honetan zehar, EJD aldatzen jarraitzeko



oinarria izango da, bertan jasotakoa bat etor dadin, 2023-2024 ikasturtetik aurrera, LHko ikastetxe bateratuetan garatzen diren zeregin guztien errealitatearekin eta ikastetxe horietako irakasleek egiten duten lan guztiarekin.

Heziketa-zikloen segida modular egoki eta koherentea ezartzearen, ikasturteko aldi jakin batzuetan asteko 25 curriculum-ordu ere izan ditzakete modulu horiek ematen dituzten irakasleek, betiere daukaten dedikazio-motatik ondorioztatzen den urteko irakaskuntza-dedikazioko orduen guztizko kopurua hartuta erreferentziazat.

Dena delakoagatik, irakasleen irakaskuntza-dedikazioa laburragoa bada oro har ezarritako orduak baino, zuzendariak ordutegia luzatu beharko die, ikastetxean eman beharreko 23 orduak osatu arte, kasu guztietan.

Irakasleen koordinazioa, lankidetzeta eta prestakuntza errazte aldera, gomendatzen da irakasle guztien asteko dedikazioa eta ikastetxean egon beharreko orduak denbora-tarte berean izatea, hezkuntza-komunitateak berak onartutako proiektu eta zerbitzuen ondoriozko salbuespenak salbuespen.

Irakasleek ikastetxean duten dedikazio arrunt EZ zuzena atal honetan erantsitako taulan ezarritako zereginetara bideratuko da, 1.462 orduko urteko lanaldia osatu arte (urteko lanaldia osatu arteko gainerako orduak).

## **b.2).- Lanaldi murriztua duten irakasleak**

Lanaldi-murrizketa lana eta familia-bizitza bateratze aldera eskatzen denean, ikastetxeetako zuzendariak ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegia eskaera horren arabera izan dadin.

### **Lanaldiaren erdia murriztea.**

Lanaldi erdia duten lanbide-heziketako ikastetxe publiko integratuetako irakasleek asteen 15 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietako 11 ikastetxean egon beharko dute. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 4 orduak eta ikastetxeari zuzenean eman behar ez dizkioten gainerako orduak b.1 ataleko irakasleen lanaldiaren laburpen-taulan aipatutako zereginetara bideratuko dira.

### **Lanaldiaren herena murriztea**

Lanaldiaren heren bateko murrizketa duten lanbide-heziketako ikastetxe publiko integratuetako irakasleek asteen 20 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 15



ikastetxean eman beharko dituzte. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 5 orduak eta ikastetxeari zuzenean eman behar ez dizkioten gainerako orduak b.1 ataleko irakasleen lanaldiaren laburpen-taulan aipatutako zereginetara bideratuko dira.

### **Lanaldiaren seirena murriztea**

Lanaldiaren seiren bateko murrizketa duten lanbide-heziketako ikastetxe publiko integratuetako irakasleek astean 25 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietako 19 ikastetxean egon beharko dute. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 6 orduak eta ikastetxeari zuzenean eman behar ez dizkioten gainerako orduak b.1 ataleko irakasleen lanaldiaren laburpen-taulan aipatutako zereginetara bideratuko dira.

### **b.3).- Irakasleen ordutegia**

Irakasleak bere 30 orduko asteko ordutegia jarri beharko du dagokion inprimakian, ebazpen honetan ezarritako jarraibideak betez.

Irakasleek ikastetxeari zuzenean eskaini beharreko dedikazio arrunteko orduak –hau da, 30 ordu astean lanaldi osoan, eta 25, 20, 15 eta 10 ordu astean lanaldiaren bost seiren, bi heren, erdia eta heren bat duten irakasleentzat, hurrenez hurren–, honela banatuko dira:

- Lanaldi osoa eta lanaldiaren seiren bateko murrizketa duten irakasleentzat: 5 egun astean, astelehenetik ostiralera, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.
- Lanaldiaren bi heren duten irakasleentzat: 4 egun astean, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.
- Lanaldiaren erdia duten irakasleentzat: 3 egun astean, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.
- Lanaldiaren herena duten irakasleentzat: 2 egun astean, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.

### **c) Ordutegi malgua duten irakasleak**

Sei urtetik beherako seme-alabak edukitzeagatik jarduera osagarriak egiten dituzten ordutegiaren barruan malgutasuna eskatzen duten irakasleei horretarako baimena eman ahalko zaie, zerbitzuaren beharrianek hala ahalbidetzen badute eta klaustroaren



bileretara eta ebaluazio-bileretara bertaratzen direla bermatuta geratzen bada. Edonola ere, neurri horrek ez du eragingo ikastetxean nahitaez eman behar dituzten orduak murrizterik.

Eskaria ikastetxeko zuzendariari igorri beharko zaio 2023/2024 ikasturtea hasi aurretik, aurrerapen nahikoarekin, ikastetxeko ordutegia behar bezala planifikatu ahal izateko.

#### **d) Gaixotasun kronikoa duten senideez arduratzeko baimena duten irakasleak**

Bigarren mailara arteko senide batez arduratzeko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraituz, 50 ordura bitarteko baimena izango dute ikasturteko.

Baimena erabiltzeko, ikastetxeko zuzendariarekin koordinatu behar dute, eskatzaileak eskolan ematen duen zerbitzua ematen dela ziurtatzeko, hezkuntzaren eta antolakuntzaren koherentzia bermatuta.

Eskatzailea eta ikastetxeko zuzendaritza ez badira bat etortzen baimena erabiltzeko moduari buruz eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, interesdunak erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako Lurralde ordezkararen aurrean, erreklamazioa hark ebatz dezan, Hezkuntza Ikuskaritzak egingo duen txostena kontuan izanda.

#### **e) Osasun-arazoan ondorioz lanaldiaren heren bateko murrizketa duten irakasleak**

Osasun-arazo larriak direla-eta irakaskuntza-dedikazioko orduen heren bateko murrizketa lortu duten irakasleek astean 6 ordu murriztu ahalko dute zuzeneko irakaslan. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikastetxean ordu gutxiago egon behar dutenik.

Ikastetxeari laguntzeko erabili behar dituzte irakaslanari kendutako orduak: praktikak egiten ari diren ikasleen tutoretza-lana egiteko –praktikak master-tituluaren barrukoak badira, aukera dute egin ala ez hautatzeko–, liburutegia zaintzeko, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak antolatzen laguntzeko, hezkuntza-arreta (guardiak) eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak agintzen dizkien antzeko beste lan batzuk egiteko. Irakasleen ordutegian jasota geratuko dira horrelako lanetan ematen dituzten orduak.

**f).- Araudi orokorraren salbuespenak**

Zuzendaritza-karguak dituzten irakasleek, ordutegian irakaskuntza zuzeneko orduak dituztenek, guardia-orduen ordeztan betetzen duten karguari dagozkion arreta-orduek bete ahalko dituzte, baldin eta posible bada eta zikloko lanbide-arloko edo zeharkako sail zehatzeko guardia-ordu guztiak behar bezala estalita badaude.

Ziklo baten lanbide-arloko edo zeharkako sail zehatz bateko irakasleek beste sail bateko irakasgaien curriculumak ematen badute, zuzendaritzak baimena eman ahalko die guardia-ordu bat kentzeko eta beste sailaren bilera bat egiteko ordu horretan.

Irakasleren baten asteko curriculum-orduen kopurua handiagoa bada oro har xedatutakoa baino, hezkuntza-arreta orduak kendu beharko zaizkio soberako orduak konpentsatzeko.

Zuzendaritzak aukera izango du irakasleei jarduera bereziak egitea ezartzeko, hezkuntza-arreta orduak (guardiak) egin ordeztan, baldin eta horretarako biderik badago eta guardia-ordu guztiak behar bezala estalita badaude.

Irakasle batek tutoretza bat eta beste kargu bat hartu baditu bere gain zerbitzu-beharrak direla eta, hezkuntza-arretako orduak (guardia) ordezkatu behar dituzte beste karguan aritzeko orduak, baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte guardia-ordu guztiak.

Hezkuntza-arreta orduen inguruan araututako salbuespenak ezin baimenduzkoak dira baldin eta baimenak badakar beste irakasleren batek hezkuntza-arreta ordu gehiago egin behar izatea dagozkionak baino.

Irakasleek ikastetxean egon behar duten bitartean, irakasle batek gutxienez hezkuntza-arreta eman behar du ikastetxean. Horretarako, zuzendaritzak irakasleen hezkuntza-arreta orduen kopurua handitu ahalko du, beharrezkoa bada. Era berean, hezkuntza-arretako orduetan arreta berezia jarri behar denean ere handitu dezake ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen ordu horien kopurua, behar adina.

Salbuespen gisa, irakasle baten baja denboran luzatzen bada hainbat arrazoiengatik (zerrendetan hautagairik ez egotea...), irakaskuntza lehenetsi behar dugu. Hori dela eta,



eskatutako espezialitateko irakasleek beteko dute lanpostu huts hori, baldin eta irakaskuntzatik kanpoko orduak dituen lanpostu bat betetzen ari badira.

Irakasle batek ez badu osatzen curriculumeko orduen gutxieneko kopurua eta beste ikastetxe batean osatu behar badu, kontuan izan behar da ordutegiak osatzeko, eta saiatu behar da egun berean ikastetxe batean baino gehiagotan curriculumik eman behar izan ez dezan. Ezinezkoa bada, berriz, joan-etorriak egiteko denbora kendu behar da guardia-orduetatik eta ikastetxean eman beharreko orduetatik.

**g).- Lanean ari diren edo langabezian dauden pertsonak kualifikatzeko eta birkualifikatzeko prestakuntza ematen duten Lanbide Heziketako irakasleak.**

Atal honetan, kontuan hartuko dugu Lanbide Heziketako eskaintzak emateko eska daitezkeen baldintzak malgutzeari buruzko urtarrilaren 25eko 62/2022 Errege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoa.

Irakasleek beren lanposturako ezarritako lanaldia eta ordutegia osatu ahal izango dute martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoan eta uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan ezarritako Lanbide Heziketako Sistemako edozein mailatako prestakuntza-ekintzak emanez. Era berean, eta horretarako, beren dedikazioa borondatez handitu ahal izango dute, interes publikokotzat hartuta, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 165.5 artikuluan eta [irailaren 6ko 348/1994 Dekretuaren](#) 1. artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bidez, arautu gabeko Lanbide Heziketa ematen duten Berariazko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako irakasle funtzionarioen bateragarritasuna deklaritzen da. Arlo horretan prestakuntza ematen duten irakasleek aipatutako dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoa bete beharko dute. Artikulu horietan honako hau adierazten da hitzez hitz:

“2. artikulua.– Arautu gabeko Lanbide Heziketako iharduketak zeintzuk diren jakin nahi duten irakasleek baimen espresua eskatu beharko diote, banan banan eta aldez aurretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langilegoaren Kudeaketa zuzendariari.

3. artikulua.– Arautu gabeko Lanbide Heziketa ematezko bigarren iharduketa horretan aritu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Urtean ez dira 250 ordutik gora emango.



- b) Ez Arautu gabeko Lanbide Heziketaren eraketak ez eta horren garapenak ere, ez dute kalterik izan beharko.
- c) Berariazko Lanbide Heziketan duten lanari legozkiokeen lanaldia eta ordutegia ezingo dituzte aldatu irakasleek. Nahitatez bete beharko dituzte euren ohizko lanari dagozkion baldintzak.
- d) Lan-erregimenpean ihardungo dute, ez egun osoan eta epealdi jakin batean.”

Lanbide-heziketako ikastetxe integratueta, irakasleek beren ohiko lanaldiaren barruan Lanbide Heziketaren edozein gradutako prestakuntza-ekintzak emango dituzte. Ekintza horiek, gainera, aktiboan dauden edo langabezian dauden langileei zuzenduta egon daitezke.

Salbuespen gisa, ikastetxe integratuak ohiko epean planifikatu gabeko Lanbide Heziketako Sistemako graduren bateko prestakuntza eman behar badute, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak beteko dira. Nolanahi ere, ikastetxeak 384/1994 Dekretuan ezarritako mugak errespetatuz egin ahal izango du eskatutako prestakuntza, betiere irakasle bakoitzeko gehienez 125 ordu emanda.

Ikastetxeko zuzendaritzak irizpide objektiboak ezarriko ditu, irakasgai horiek irakasteko gaitasuna duten irakasleei irakasgaiak esleitzeko. Irizpide horien artean, hauek izango dute lehentasuna: ekoizpen-sektorean lanbide-esperientzia izatea, Enplegurako Lanbide Heziketaren edo Ikas-ekinezko Lanbide Heziketaren ekimeneko irakasgai horietan irakasle-lanetan jardun izatea, edo eskainitakoarekin bat datorren hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako irakaskuntzetan irakasle-lanetan jardun izatea. Halaber, irizpide horietan kontuan hartuko da oreka bat egotea hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako irakaskuntzen eta Enplegurako Lanbide Heziketaren ekimeneko irakaskuntzaren artean.

#### **h).- Lanbide Heziketako irakasleak, ikerketa eta berrikuntza aplikatuak lantzen.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak berrikuntza aplikatuko eta ekintzaitzako ikaskuntza-arloez dihardu bere 7, 8, eta 9. artikuluetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailari eskatzen dio susta dezala berrikuntza aplikatuaren eta ekintzaitza aktiboaren ikaskuntzako jarduerak ikastetxe guztietan sartzea. Gainera, lege horren beraren 29. eta 30. artikuluetan honako hauek ere aipatzen ditu: ikerketa eta berrikuntzaren bultzada eta etengabeko hobekuntza lanbide-heziketa bateratuan. Horregatik guztiagatik, ikastetxeari zuzenean dedikatu beharreko



ordutegia osatzeko (30 ordu) irakasleek berrikuntza aplikatuan, ikerketan eta ekintzaitzari jardun ahal izango dute.

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetan, irakasleak berrikuntza aplikaturako, ikerketarako eta ekintzaitzarako orduak eduki ahal izango ditu bere lan-ordutegi arruntaren barruan.

Ikastetxeko zuzendaritzak arlo horietarako konpetentziak dituzten irakasleei esleitzeko irizpide objektiboak ezarriko ditu; irizpide horien artean, lehentasuna emango zaio arlo horretan esperientzia izateari.

#### **4.- Zuzendaritza-karguak eta bestelako karguak**

Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, ikastetxeko zuzendaritza-taldea honakoek osatzen dute: zuzendaria, ikasketa-burua, idazkaria eta administraria, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxeetan.

Horrez gain, ikastetxe bakoitzak dauzkan zerbitzuen, prestakuntza-eskaintzaren eta egituraren arabera, honako kargu hauek egon ahalko dira:

- Baldin eta ebazpen honetako II.5.b) atalak xedatzen duenarekin bat zuzendaritza-karguen eta bestelako karguen ordu-murrizketak kalkulatu eta gero ikusten bada ikastetxean badirela ordu nahikoak, alboko zuzendaria, alboko ikasketa-burua eta alboko idazkaria egon ahalko dira.
- Eskolak gauez ematen dituzten ikastetxeetan, gaueko ikasketa-burua.
- Kalitatea Kudeatzeko Zuzendaritzaren ordezkaria, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ezarritako ziurtapenei eusteko lanak koordinatzeko, lanbide-heziketa aseguratzea eta etengabe hobetzea bermatzeari begira.
- Enplegurako Lanbide Heziketaren ekimenen arduraduna, ikastetxeak eskaintzen dituen enplegurako heziketa-ekintzak nahiz enpresekiko edo/eta beste erakunde batzuekiko harremanak koordinatu eta kudeatuko dituen.
- Obren mantentze-lanen arduraduna.





- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 32.3 artikuluari jarraikiz, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ezarritako ikastetxeetan normalean definitutakoez bestelako karguak egon daitezke.
- Ikastetxeko zuzendaritzak bere autonomiaz baliatuz izendatzen dituen beste kargu batzuk.

## **5.- Zuzendaritza-karguetarako eta bestelako karguetarako ordu-murrizketa**

### **a).- Ordutegia murrizteko irizpideak**

Zuzendaritza-karguei eta bestelakoei egozteko asteko ordu-murrizketa egiteko, Hezkuntza Sailaren unibertsitez kanpoko ikastetxeetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzko 2022ko maiatzaren 26ko Akordioaren 5. paragrafoan (langileak hornitzeko irizpide orokorreari buruzko kapitulua, ikastetxearen kudeaketari buruzko 1.2.2 puntua) ezarritako irizpideei jarraituko zaie:

- Ikastetxeko ikasle ofizialen guztizko kopurua. Hona hemen aurreikusitako tarteak:
  - 350etik behera ..... 33 orduko murrizketa
  - 350 - 749..... 39 orduko murrizketa
  - 750 - 999..... 45 orduko murrizketa
  - 999tik gora..... 48 orduko murrizketa

Gainera, honako ordutegi-kredituak izango dituzte:

- 2 ordu osatutako talde bakoitzeko.
- 1 ordu ezarritako ziklo bakoitzeko.

### **b).- Murrizketa-orduen erabilera**

Zuzendaritza-karguen eta bestelako karguen murrizketen guztizkoa aurreko atal guztietako murrizketen batura izango da.



Ikastetxeek astean murriztutako ordu guztiak zuzendariaren, ikasketaburuaren, idazkariaren, administrariaren eta ikastetxean dauden gainerako karguen artean banatuko dituzte.

Honako hau izango da karguei lotutako ardurak, eginkizunak eta lanak gauzatzeko dedikatu beharreko gutxieneko ordu-kopurua:

ZUZENDARIA	9 ordu
Ikasketaburua	6 ordu
Idazkaria	6 ordu
Administraria	3 ordu
Mantentze-lanen eta obren arduraduna	3 ordu
Etengabeko hobekuntzako arduraduna	3 ordu

Ikastetxearen beharren arabera, ikastetxearen zuzendariak dedikazio-orduak gehitu ahal izango ditu, zuzendaritza-kargu eta beste kargu batzuei esleitutako ordutegi-kreditutik eta curriculum emateko orduen barruan.

Horretarako, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Kargu titularren ordu-dedikazioak handiagoa izan behar du alboko karguarenak baino.
- Alboko karguaren osagarri espezifikoaren zenbatekoa jasotzeko, alboko zuzendariak gutxienez 7 orduko dedikazioa eduki beharko du, eta 4 ordukoa, berriz, alboko idazkariak eta alboko ikasketaburuak.
- Ezarritako gutxieneko dedikazioari dagokionez, zuzendaritza-taldeak kargu bakoitzaren dedikazio-orduen kopurua erabakiko du, ikastetxeari zuzendaritzako ordu-poltsa deitutakoaren barruan dagozkion orduak agortu arte.
- Bere autonomia erabiliz, ikastetxeak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) ezarri ahalko du alboko kargu gehiago izatea, aurreko jarraibideek aipatzen



dituztenak baino. Nolanahi ere, kargu eta alboko karguek ordainsari osagarria kobratzeko eskubide izango dute baldin eta, Hezkuntza Sailaren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzko 2022ko maiatzaren 26ko Akordioaren 5. paragrafoan (langileak hornitzeko irizpide orokorren kapitulua) ezarritakoaren arabera kalkulaturako ordu guztietatik orduak esleituta dituzten kargu eta kargudunek.

### **c).- Zuzendaritza-karguen ordutegia**

Egutegi orokorrak finkatu behar du zuzendaritza-taldeko kide bat behintzat ikastetxean egotea eskola-ordu guztietan.

Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariak aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte deituta dauden bileretara joateko.

## **6.- Irakasleen bertaratzea**

### **a).- Lanorduak betetzen direla kontrolatzea**

Irakasleek irakastegi-ordutegia eta eskola-ordu ez diren orduak bete behar dituzte. Hezkuntza Sailak horretarako kontrol-mekanismo egokiak erabili ahal izango ditu.

Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen absentziak erregistratuko dituzte «Eguneroko eskola-jarduerak (EED)/Ordutegi-taula» aplikazioa erabiliz. Horretarako, erlantz berri bat jarri da EEDn: *“Irakasleen bertaratzea”*. Erlantz horretan sartu ondoren, zer irakaslek egin duen huts eta absentziaren eguna, iraupena eta zergatia adieraziko dira. EEDn zabalgarri bat agertuko da huts egiteko arrazoi GUZTIEKIN, eta dagokiona aukeratu beharko da.

Absentzia justifikatuko ez balitz, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EEDko hutsegiteen zabalgarrian, eta aplikazioak automatikoki bidaliko dio jakinarazpen bat erreferentziako ikuskariari. Hark Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean kasu horretarako aurreikusten diren prozedurak hasiko ditu. Kasu horietan, irakasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntzako lurralde-ordetzariaren aurrean, eta berak emango du ebazpena.

Lan-baldintzak arautzen dituen akordioan aipatzen ez diren beste arrazoi batzuentatik huts eginez gero, ikastetxeko zuzendaritzak «Beste arrazoi batzuk» aukera hautatuko du



EEDko hutsegiteen zabalgarrian, eta irakasleak, gainera, «III. ERANSKINA» dokumentua bete beharko du («Irakasleen/Lan-legepeko hezitzaile pertsonalen hutsegiteak jakinaraztea» apartatuan). Esteka honetan dago:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/lanbide-heziketako-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>

Zuzendariak “ III.ERANSKINA” izenpetzen badu, esan nahi du bertan ematen den azalpena bermatzen duela, eta baliozkotasuna ematen dio. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da.

Irakasleen hutsegite guztiak behar bezala justifikatu behar dira, eta, ahal den guztietan behintzat, agiriz egiaztatu beharko zaizkio zuzendaritzari, azken horrek eskatu beharrik gabe, eta indarreko araudian ezarrita dagoen moduan.

Hutsegiteen frogagiriak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagiritan absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia zehaztu beharko dira. Agiri horiek jatorrizkoak izango dira.

Aurretik jakin edo aurreikus daitezkeen absentzietan, irakasleek behar adinako denborarekin eta idatziz jakinarazi behar dizkiote ikastetxeko ikasketa-burutzari absentziak eragindako taldeetako ikasleek egin behar dituzten jarduerak eta horretarako komeni diren materialak eta jarraibideak, ordezkatuko dituzten hezkuntza-arretako irakasleek jarduera horiek behar bezala gara ditzaten.

Aurreko ikasturteetan egin izan den bezala, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen absentziak erregistratu beharko ditu hurrengo hilabeteko 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egon daitezen.

Irakasleek greba egiten badute, ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko dio. Horretarako, «Eguneroko eskola-jarduerak (EED)/Ordu-tegi-taula» aplikazioa erabiliko da, eta «Irakasleen bertaratzea» erlaitzean, «Greba-datuak». Kasu horietan, eskura dauden giza baliabideekin ikasleak ahalik eta ondoen artatuko dira.

Halaber, ikusten bada irakasle batek ez duela betetzen sartzeko eta irteteko ordutegia, zuzendaritzak eskatu beharko dio behar bezala bete dezala. Hala ere ez badu ordutegia betetzen, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari jakinaraziko dio, baita Hezkuntza Ikuskaritzari ere, behar diren neurriak har ditzaten.



Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleek hutsegiteak arrazoitzeko agiriak aurkeztu behar dizkiote zuzendariari, dagokionean, hark noiz eskatuko zain egon gabe.
- Ikastetxetik kanpo IRALE ikastaroetan edo antzekoetan dabilzan irakasleek ikastaroa egiten ari diren lekuan bertan aurkeztu behar dituzte ikastarora huts egin izana arrazoitzeko agiriak.

Ikastetxeek lurralde-ordezkaritzetako langileen unitateekin kudeatu ohi dituzten lizentziak eta baimenak unitate horiek emandako argibideen arabera kudeatuko dira.

Halaber, kontuan izan behar da, egunero egiten diren ordezkapenen kudeaketa telematikoa ezarri denez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak ezartzen ditu lizentziak eta baimenak kudeatzeko prozedurak, eta 2023-2024 ikasturtean zehar aldaketaren bat egin beharko balitz, garaiz jakinaraziko litzateke.

Ikastetxe batzuetan, irakasleez gain, Saileko irakasle eta/edo lan-legepeko hezitzaile-pertsonala dago. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek irakasleen absentziak EEDn erregistratzeko erlaitza erabilita sartu ahalko dituzte datuak.

## **7.- Irakasleen gogobetetasun-mailak**

Sailburuordetza honen helburuak lortzeko duen garrantzia dela-eta markatutako lan-ildo garrantzitsuenetako bati ekiteko konpromisoari erantzuteko, ikasturte honen lehen hiruhilekoan zehar inkesta-eredu bat bidaliko zaie ikastetxeetako zuzendaritzeari, gure irakasleen gogobetetasun-maila aztertzeko eta, modu horretan, zer arlo hobetu behar ditugun jakiteko (zuzendaritzek eredu hori zabaldu ahal izango dute ikastetxearen alderdi espezifikoak jasotzeko).

Ikastetxe bakoitzean jasotako emaitzen eta hobetzeko arloen txostena Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari bidaliko zaio, bigarren hiruhilekoan, zeinek aztertu, eta lortutako emaitzak hobetzeko beharrezko diren ekintzak martxan jarriko baititu.



## 2.2.- FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA

### 1.- Sailak

#### **a).- Lanbide-arlo bakoitzaren sail zehatzak eta zikloko zeharkako sailak**

Dira kasuan kasuko lanbide-arloko heziketa-zikloetako moduluetakoko berezko ikaskuntzak antolatu eta garatzeaz arduratzen diren organoak. Bertako burutzaren zuzendaritzapean, lanbide-arlo bateko heziketa-zikloetako eskolak ematen dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatu behar dute. Taldeen zeregina eta lana taldekide guztien erantzukizuna da.

Sailak dagokion saileko buruak zuzendu eta kudeatzen ditu.

Ikastetxeko zuzendariak zehaztuko du zein irakasle atxikiko den ikastetxe bateratuko sail zehatzetako bakoitzera, Proiektu Estrategikoan ezartzen diren jarduerak garatzeko, betiere irakasleen prestakuntzaren eta konpetentzien arabera.

Sailak eratzean, orokorrean honako arau hauek bete behar dira:

- Ikastetxean curriculum-orduren bat ematen duten irakasle guztiek *zikloko sail zehatz edo zeharkako* bateko kide izan behar dute.
- Irakasle bat ere ezin da izan *zikloko lanbide-arlo edo zeharkako* bakoitzeko bi sail zehatzeko kide. Ildo horretan, irakasle batek bi sail *zehatzetako* edo gehiagotako irakasgaien curriculumak ematen badu, sail honetako izan behar du: zer irakasgaitan ematen duen ordu gehien, haren sailekoa. Hala ere, ematen dituen gainerako irakasgaien sailen bileretan eta haren lan eta erabakietan parte har dezake.
- Baldin eta ikastetxean espezialitate bateko berariazko bi irakasle ez badaude, eta, beraz, espezialitateko sailik sortu ezin bada, antzeko bi espezialitatek edo gehiagok osatutako sailak eratuko dira.
- Aurreko arauen arabera sortuko diren sailez gain, ikastetxeek beste sail ez zehatz batzuk sortu ahal izango dituzte, ebazpen honen 1.b puntuko II. atalean ezartzen denari jarraikiz.



- Ikastetxeko sailak eratzeko proposamena (zehatzak eta zeharkakoak, ziklokoak nahiz ikastetxekoak) zuzendaritza-taldeak egingo du, aurretik ezarritako jarraibideak betez, eta “ordutegi-taulak (EED)” aplikazio informatikoan sartuko da. Hezkuntzako Ikuskaritzak aztertu behar du ea proposamenak betetzen dituen beharrezkoak diren eskakizunak eta, bete egiten baditu, oniritzia eman beharko dio aipatutako aplikazio informatikoan, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.

### ***b) Sailak kudeatzeko ordu-kreditua***

Ikastetxeak ordu-kreditu bat izango du, Hezkuntza Sailaren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzko 2022ko maiatzaren 26ko Akordioko 5. paragrafoan (langileak hornitzeko irizpide orokorren kapitulua) eta 1.2.1 puntuan (ikastetxeko sailen kudeaketa) ezarritakoa oinarri hartuta, honako irizpide hauen arabera:

- 5 ordu familia bakoitzeko lehen zikloan.
- 2,5 ordu hurrengo zikloetako bakoitzeko.
- Eskaintza partzialeko modalitatean zikloak ematen dituzten ikastetxeek, gainera, 0,33 orduko ordu-kreditua izango dute, eman beharreko 150 orduko kudeatzeko.
- FPE ematen duten ikastetxeek, gainera, 0,33 orduko ordu-kreditua izango dute ikasturte horretarako agindutako 150 orduko.

### ***c).- Sailaren bilerak***

Astean ordubete gorde behar da gutxienez sailtako kide guztiak biltzeko, ikastetxeko asteko eskola-ordutegiaren barruan. Saileko kideek nahitaez joan behar dute saileko bileretara.

Sailetan akta-liburu bat egongo da, aukeratutako formatuan (papera, elektronikoa...). Liburu hori pertsona bakarreko gobernu-organoen, ikastetxeko partaidetza-organoen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egon beharko da.

Akta bat egin behar da sailak egiten duen bilera bakoitzeko. Aktak saileko buruak edo hark izendatu duen pertsonak idatzi beharko ditu, eta sailak oniritzia emango du.

Ikasturtea bukatuta, sailtako kideak bildu behar dira, ikasturtearen ebaluazioa egiteko, lan-plana eta haren lorpenak aztertzeko eta hurrengo ikasturterako egin beharreko



zuzenketak zehazteko. Saileko burutzak memoria bat idatziko du, ikastetxearen urteko memorian sartzeko.

**d).- Zikloko sail zehatzen eta zeharkakoen zereginak**

Garrantzitsua da esatea sailen zeregina lan bateratua dela, organo batek baino gehiagok osatua; beraz, kide guztien erantzukizuna da moduluak programatzea, proiektu edo/eta programetan parte hartzea, ikastetxeak ematen dituen zerbitzuekin lankidetzan aritzea, ikasleentzako probak egin eta zuzentzea, estatistikak egitea eta beste lan batzuk gauzatzea.

Gainera, curriculum ofizialak erreferentziatzen hartuta betiere, sailek badute aukera haiek egokitzeko, hautatzeko eta zehazteko, diseinatutako lan-planaren eta programazioen arabera. Aldaketa guztiak sailaren akta-liburuan adierazi behar dira. Hezkuntzako Ikuskaritzak moduluen programazioak kalitatezkoak direla bermatuko du.

Sail horiei zeregin hauek dagozkie:

- Sailera atxikitako heziketa-zikloetako modulu profesionalen programazioa egitea, curriculumak, ikasturteko moduluen banaketa, modulua osatzen duten unitate didaktikoak, ikaskuntza-emaitzak, ebaluazio-irizpideak, lotutako edukiak eta unitate didaktiko bakoitzerako jardura-plana zehaztuta, ikasleek modulu profesional bakoitzean ezarritako gaitasunak eskuratzen dituztela bermatze aldera.
- Ohiko eta ohiz kanpoko probak prestatzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- Proiektuak proposatzea: prestakuntza, berrikuntza, ekintzailatza eta nazioartekotzea.
- Emaitza akademikoak aztertzea eta baloratzea, eta programazioak aztertzea eta zenbateraino betetzen diren balioztatzea.
- Heziketa-zikloetako bakoitzean eta enplegurako lanbide-heziketako ikastaroetan ikaskuntza-prozesuak era egokian garatzeko beharrezko diren ekipu teknologikoak, tailerrak eta elementu logistikoak antolatzea.





- Lantokiko Prestakuntzako modulua era egokian garatzen dela, inguruko enpresekiko harremana egokia dela, berrikuntzako programak edo proiektuak garatzen direla, prestakuntza duala ematen dela... bermatzeko estrategiak eta zereginak ezartzea, eta jarduera horien guztien jarraipena egitea. Era berean, proiektuko modulua zehaztu eta ebaluatzeko irizpideak ezarri behar dira.

#### ***e).- Saileko burutza***

Saileko buruak ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) eta Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuan aipatutako zereginak hartuko ditu bere gain. Nolanahi ere, sail bakoitzaren zereginak ikastetxearen proiektu estrategikoan definituko dira.

Saileko burutzak curriculum-proiektuekiko koherenteak diren programazio didaktikoak aurkeztu beharko ditu, ikastetxearen zuzendaritzan, urriaren 3a baino lehen. Programazioak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku egongo dira, ikastetxean bertan gorde eta zainduta. Programazioak heziketa-ziklo bakoitzaren eta gainerako prestakuntza-ekintzen curriculum-proiektuetara atxikiko dira.

#### ***f).- Saileko burutza izendatzea***

Zuzendariak izendatu behar ditu sailtako buruak, irizpide hauek kontuan hartuz betiere:

- Sailtako buruak sailtako bertako irakasle izan beharko dira, eta ez dute beren gain bestelako zuzendaritza-kargurik eduki beharko.
- Ikastetxean katedradun-izaera duen pertsonaren bat badago, pertsona horiek beren espezialitateko saileko burutza okupatzeko duten lehentasuna errespetatuko da.
- Aipatutako irizpideei men eginda betiere, ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) xedatzen duena hartu behar da kontuan sailtako burutzak hautatzeko.



- Zuzendariak izendatuko du, saileko kideek proposatuta. Sailek proposamenik egiten ez badute, berriz, ikastetxeko zuzendaritzak bere kasa erabaki behar du.

Sailetako buruek ezin diote karguari uko egin izendatutakoan, nahitaezko kasuetan izan ezik, sailetako burutza guztiek titular bat izan dezaten ikasturte hasierarako.

Titularra falta denean, eta hutsune hori 6 hilabete baino gehiagoz luzatzen bada edo, salbuespen kasuetan, aldi laburragoetan, saileko kide den beste pertsona bati esleitu ahal izango zaizkio zereginak. Zereginen esleipen hori ikastetxeko zuzendaritzak gauzatuko du, dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntzako Ikuskaritzaren baimena eskuratu ondoren.

#### ***g).- Sailaren dokumentazioa***

Sail didaktiko guztiek akta-liburu bat eduki beharko dute, ikastetxean ezarritako formatuaren arabera, eta ikastetxeko kide bakarreko organoen, partaidetza-organoen eta Ikuskaritzaren eskura utzi.

Akta bat egin behar da sailak egiten duen bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek izenpetu behar dituzte aktak, eta saileko buruak edo sailak izendatutako irakasleak idatzi behar ditu. Sailak aktei oniritzia eman beharko die.

Ikasleen proba, ariketa eta azterketak gorde behar dira ebazpen honek berak kalifikazioen aurkako erreklamazioak egiteko eskubideari buruzko atalean eta abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, 9. artikuluan xedatzen dutenarekin bat. Dokumentazio hori ikasturte amaierara arte gorde beharko da, eta ebatzi beharreko erreklamaziorik badago, prozesua amaitu arte beharrezko den denbora guztian.

#### ***h).- Funtzionamendu-araubidea***

- Hamabostean behin, gutxienez, ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko sail desberdinak osatzen dituzten kudeaketa-arduradunei deitu beharko die, Plan Exekutiboaren jarraipena jorratu, ahuleziak eta indarguneak aztertu, eta hobekuntza-arloak lantzeko. Ikastetxeko idazkaritzako arduraduna arituko da idazkari-lanetan.



- Gutxienez astero izango dute bilera bat sailtako arduradunek beren saila osatzen duten kideekin.
- Gutxienez hamabostean behin izango du bilera bat zikloko irakaskuntza-taldeak taldeko tutorearekin, curriculuma jasotzen ari den ikasle taldearen funtzionamendua egokia dela zaintzeko.
- Bilera horietara guztietara joatea nahitaezkoa izango da.

## **2.- Guardiak**

### ***a).- Ikastetxeko zuzendaritzaren guardiak***

Ikastetxeko zuzendariak, haren ordezkari gorenaren denez, ikasleen ardura izango du horiek ikastetxean dauden bitartean, bai eta jarduera guztien funtzionamenduaren gaineko ardura ere, ikastetxea irekita dagoen bitartean. Hori dela eta, beharrezkoa da, ikastetxean egon bitartean, zuzendaritza-taldeko kideren bat egotea beti, zuzendaritzaren ordezkari legez.

### ***b).- Guardiako irakaslearen oinarrizko zereginak***

Hezkuntza-arretako orduak era egokian garatzeko, irakasleek honako zeregin hauek gauzatu beharko dituzte:

- Ikasleak zaintzea, dagokien irakaslea ez dagoelako edo beste arrazoiren bat dela medio bakarrik gelditzen direnean. Horretarako, dagokion sailak horrelakoetarako planifikatutako material eta jarduerak erabili behar dituzte.
- Korridore, ikasgela, tailer eta bestelako bulegoetan ordena zaintzea, betiere beren jarduera-eremuan, eta, orokorrean, ikasleek gelatik kanpo duten jarrera zaintzea. Edonola ere, horrek ez du esan nahi gainerako irakasleak jarduera horretan salbuetsita daudenik.
- Bere txandaren barruan gertatzen den edozein ustekabe berehala konpontzea, gertatutakoaren arabera, eta ikasketa-buruari edo zerbitzuko arduradunari edo beste kargu bati haren berri ematea, ahal bezain laster. Besteak beste, egin



beharrekoa egin behar du ikastetxeko norbaitek sendagilearen laguntza edo bestelakorik behar badu.

- Islatzea, dagokien gertakarien partean, irakasleen betebeharrak normaltasunez garatzeari eta betetzeari eragiten dioten gorabehera guztiak.
- Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) esleitzen zaizkion beste zeregin batzuk.

### ***c).- Gertakarien partea hezkuntza-arretako aldian***

Ikasketa-buruak eguneroko gertakarien parte bat eduki behar du, betiere Hezkuntzako Ikuskaritzari erakusteko moduan. Agiriak datu hauek adierazi behar ditu, gutxienez:

- Irakasleen hutsegiteak eta atzerapenak.
- Ikastetxean gertaturiko edozein gorabehera.
- Gertatutako ezbeharrak.
- Guardiako irakasleen sinadurak.

## **3.- Tutoretzak**

### ***a).- Tutoretzak izendatzea***

Ikastetxe bakoitzean tutore bat izendatu beharko da, ikasleen talde bakoitzeko. Tutoreak taldeko irakasle izan behar du; taldeko ikasle guztiek ematen duten moduluetakoa irakasle izan beharko du.

Talde guztietarako tutore nahikorik ez badago, beste kargu batzuk dituzten edo beste tutoretza batzuek arduratzen diren irakasleek arduratu beharko dute. Horretarako, guardia-orduak egitetik salbuetsita geratu ahalko dira, betiere beste irakasleen artean egiten badituzte.

Tutoreak ikastetxeko zuzendariak izendatu beharko ditu, ikasketa-buruaren proposamenari jarraituz.



Tutoreek tutoretza-orduak izango dituzte tutoretza-plana garatu eta ezartzeko.

### ***b).- Tutorearen zereginak***

Tutoretza-lanaren helburua ikasleei babesa eman eta beren jarraipena egitea da, bai banako-mailan, bai talde-mailan, ikasleek beren proiektu profesional eta pertsonala eraiki dezaten.

Tutore bakoitzak bere taldeko ikasleak orientatu behar ditu, eskolak talde berean ematen dituzten irakasleekin koordinatuta, eta, era berean, ikasle adingabeei dagokienez, komunikazio arina izan behar du ikasleen familiekin edo/eta legezko tutoreekin. Orientazio-lan hori Lanbide Informazio eta Orientazio Sailarekin koordinatuta egingo da. Zehatz esanda, egiteko hauek bete behar ditu:

- Tutoretza-plana egitea.
- Ikasle-taldearen irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokienez, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan sortzen diren egoera banakako eta orokorren azterketari dagokienez.
- Ikasleekin talde-tutoretza egitea, tutoretza-programazioan zehaztutako orientazio-ekintzak barnean hartuta, baita banakako tutoretza ere.
- Prestakuntza-jardueri buruzko informazioa ematea ikasleei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei. Edonola ere, gurasoek eskubidea dute taldeko irakasleengana eta ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko. Ikastetxeak asteko bisita-ordutegia jakinarazi behar die gurasoei.
- Bere taldeko ikasleen familiekin eta/edo legezko tutoreekin harreman arinak izatea, hezkuntzako lana errazteko, alde biei dagokienean.
- Ebaluazio-saioak koordinatzea, eta emaitzak ematea. Gainera, irakasgaiei buruzko estatistikak eta Ikasketa Burutzak eskatutako datu guztiak bete beharko ditu, baita ikasleen dokumentu akademikoak ere, tutoretza-jardueraren ondoriozkoak badira.



- Taldeko ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea eta haien berri ematea ikastetxeko ikasketa-buruari eta familiei.
- Aurrekoak aplikatzeko edo garatzeko ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) egokitzen dizkion guztiak.

#### **4.- Bertaratze-hutsegiteen kontrola**

Irakasle guztiek dute ikasleek beren eskoletara egiten dituzten hutsegiteak kontrolatzeko ardura, bai eta taldeetako tutoreei egiten diren hutsegiteen berri emateko erantzukizuna ere. Bestalde, tutore guztiek ikasleen hutsegiteen jarraipena egiteaz arduratu beharko dute.

Familiei ikasleen hutsegiteen berri ematerakoan, ikasleak adingabeak badira, ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) diotenari jarraituko zaio. Araudian gai horri buruz ezer esaten ez bada, ikastetxeko Gizarte Kontseiluak familiei hutsegiteen berri emateko epeak ezarriko ditu, hauei informazio zuzen eta zehatza emango zaiela ziurtatuz.

Ikasketa-burutzak neurriak hartu beharko ditu familiek hutsegiteen berri ezarritako epean izateko, eta ikastetxeko zuzendaritzak eman behar dizkie aginduak tutoreei eta/edo ikastetxeko administrazioko langileei.

#### **5.- Familiekiko bilerak**

Ikastetxeak tutoreen eta familien arteko informazio-bilerak antolatu beharko ditu, batez ere ikasleak adingabeak direnean. Halaber, gurasoak eta/edo legezko tutoreak bileretara bertaratzeko erraztasunak jarriko ditu, eta taldeko irakasleak ere bertaratzen direla ziurtatzeko ahalegina egingo du.

Familiekiko bilera horien zehaztasunak (irekiak, orokorrak, taldeka, banaka edo nola egingo diren) eta beren antolaketa ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) diotenaren arabekoak izango dira. Araudiak ez badio ezer gaiari buruz, ikastetxeko Gizarte Kontseiluak onartu beharko ditu dagozkion erabakiak. Era berean, bileren egutegia finkatu ere egin behar du, azaroaren 2a baino lehen.



## **6.- Praktiketako unibertsitate-ikasleen tutoretza**

Unibertsitateko tituludun berriek irakaskuntza arloko egitekoetan prestakuntza praktikoa izan dezaten, Hezkuntza Sailak lankidetzeta-hitzarmena izenpetu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin, horrelako praktikak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan errazteko konpromisoa hartuta. Hortaz, ikastetxeetako zuzendaritzei gomendatzen zaie ahal den neurrian erraztea tutoretzapeko praktika horiek.

Ikastetxeko zuzendaritzak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretzalanak egiten dituzten irakasleei, eskola-orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezten. Hutsegite horiek justifikatzeko, deialdia eta zuzendaritzaren baimena aurkeztu beharko dira. Ezin izango da ordezkorik eskatu horiek betetzeko.

## **7. Lanean edo langabezian dauden pertsonak kualifikatzeko eta birkualifikatzeko lanbide-heziketa.**

Atal honetan, kontuan hartuko dugu Lanbide Heziketako eskaintzak emateko eska daitezkeen baldintzak malgutzeari buruzko urtarrilaren 25eko 62/2022 Errege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoa.

Beren lanpostuaren lanaldia eta ordutegia osatu beharko dituzte irakasle horiek, beste modalitate batzuetako prestakuntza-ekintzak emanez. Era berean, nahi badute, beren dedikazioa handitu ahal izango dute, eta handitze hori interes publikotzat hartuko da. Eremu honetan parte hartzen duten irakasleek II. kapituluko 2. puntuko (Antolamendu-Neurriak) 2.1. atalean (Irakasleen antolaketarekin lotutako alderdiak) 3. puntuan (irakasleen lanaldia) g atalean ezarritakoa bete beharko dute.

Ikastetxeko zuzendaritzak irizpide objektiboak ezarriko ditu, irakasgai horiek irakasteko gaitasuna duten irakasleei irakasgaiak esleitzeko. Irizpide horien artean, hauek izango dute lehentasuna: ekoizpen-sektorean esperientzia profesionala izatea, enplegurako lanbide-heziketako irakasgai horietan irakasle-lanetan jardun izatea, edo eskainitakoarekin bat datorren hasierako lanbide-heziketan irakasle-lanetan jardun izatea. Halaber, irizpide horietan kontuan hartuko da oreka bat egotea hasierako



prestakuntzako irakaskuntzaren eta enplegurako lanbide-heziketako irakaskuntzaren artean.

### **2.3. IKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK**

#### **1.- Eskola-ordutegia**

Ikastetxeko irakasle-klaustroari dagokio, ikastetxeko partaidetza-organoa den neurrian, ikasleen eskola-ordutegiari buruzko proposamenak egitea eta onartzea, bai hezkuntza-sistemako lanbide-heziketarena, bai enplegu-prestakuntzarako heziketarena.

Ikastetxeko zuzendaritzak, haren arduraduna den aldetik, ikastetxeak zenbat denboran egon beharko duen zabalik ezarri beharko du, eta, edonola ere, administrazio eta zerbitzuetako langileen lan-eskubideak errespetatuko ditu.

Ikasturtean ezin dira aldatu ikasleen eskola-orduak, salbu eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendu dituen ohiz kanpoko arrazoiak direla eta.

Ikastetxe batek eskolako egutegia aldatu behar badu, baldintza hauek bete behar ditu:

- Proposamena bat etorri behar da eskola-egutegiari buruzko araudiak ezartzen dituen eskakizunekin.
- Ikastetxeko irakasle-klaustroaren gehiengo absolutuak onartu beharko du aldaketa-proposamena.
- Aurreko baldintzak beteta, ikastetxeko zuzendaritzak Lurralde Ordezkaritzara bideratu beharko du aldaketa-eskaera.

Ordutegiak eskakizun hauek bete behar ditu:

a) Ikastetxeek hiru curriculum-ordu eman ditzakete gehienez jarraian, tartean jolasaldia egin gabe.

b) Jolasaldia gutxienez 15 minutukoa izan beharko da. Egun osoan jolasaldi bakarra badago, jolasaldia 30 minutukoa izan beharko da gutxienez.





Lurralde Ordezkaritzak, egoki irizten dituen txostenak bildu ondoren, eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari kontsulta egokia egin ondoren, aldaketa hori gauzatzeko baimena eman edo ukatuko du; horrela, ikastetxeak eskola-komunitateko kide guztiei jakinarazi ahal izango die ordutegi-aldaketa.

## **2.- Ikastetxetik kanpoko jarduerak ikasleekin**

Ikastetxeak aurreikusten badu ikastetxetik kanpo jarduerak, irakaste-ordutegiaren barruan, hau da, jarduera osagarrietan, hala nola enpresetara bisitak, prestakuntza-zikloko moduluekin edo espezializazio-ikastaroarekin lotutako jarduerak garatzea, etab. Jarduera horiek ikastetxearen Plan Exekutiboan sartuta egon beharko dute, eta hala ez bada, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak aurretik onetsi beharko ditu.

Ikasle adingabeek ikastetxetik irten behar badute horrelako jarduera didaktikoak direla-eta, guraso edo legezko tutoreek idatzizko baimena eman beharko dute.

Ikasleek ohiko eskola-orduetan egiten dituzten irteerak erregistratuta geratuko dira, eguneratuta, eta, erregistro horretan jarduera horren data, ordua, iraupena eta helburua adierazi beharko dira. Txosten horrek ikastetxean egon beharko du, Ikuskaritzaren eta ikastetxeko gizarte-kontseiluaren esku egon dadin.

Oro har, joan-etorri horiek garraio-zerbitzu bat kontratatuz egin beharko dira, adibidez, autobusez. Salbuespenezko kasuetan soilik, hau da, aipatutako zerbitzua kontratatzea ahalbidetzen ez dutenean (adibidez, basogintza-praktikak ikastetxetik kanpo egitea), ikastetxeko irakasleek edo langileek ikastetxeko ibilgailuren bat edo ibilgailu partikularrak erabiliz eraman ahal izango dituzte ikasleak. Kasu horietan, ibilgailu horiek dagokien aseguru-poliza eduki beharko dute indarrean.

## **3.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak**

Gai honi dagokionez, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan (EHAA, abenduaren 16koa), araututakoa aplikatuko da, baita indarrean dagoen araudiari jarraikiz, ikastetxeko AJAn dekretu hori zehazteko arautzen dena ere.



#### **4.- Ikasleak eskoletara joatea**

Ikasle ofizial ororen eskubidea eta betebeharra da eskoletara joatea. Inola ere ezin da esan bertaratzea borondatezkoa denik, ikasleak matrikulatuta dauden irakasgaietan.

.- Egunen batean ikasle gutxi badago, dena delakoagatik, irakasleek berdin-berdin eman beharko dute curriculuma.

.- Gurasoek edo legezko tutoreek ikasle adingabeen hutsegiteak justifikatu beharko dituzte dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketa-buruak frogagiria onartu beharko du. 18 urtetik gorako ikasleek beren frogagiriak aurkeztea erabakitzen badute, lan-harreman arruntan esparruan aurkeztu beharko dituzten frogagiri berak aurkeztu beharko dituzte.

.- Orain arte esandakoa kontutan izanik, ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) arauak eman beharko ditu ikasleen hutsegiteei eta sor daitezkeen zuzenketa-neurriei buruz, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat (EHAA, 2008ko abenduaren 16koa).

#### **5.- Goi-mailako kiroleko ikasleak eskoletara joatea**

Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren (2010eko abuztuaren 20ko EHAA, 160. zenbakia) 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, kirolari horientzat eskoletara joateko araubidea aurreko puntuan adierazitakoaz bestelakoa izango da. Horren arabera:

- Goi-mailako kirolariak, teknikariak edo epaileak unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiten badituzte, honako neurriak aplikatu ahal izango dituzte, beren kirol-jarduera eta jarduera akademikoa bateragarriak izan daitezen:
- Eskoletara joatea eta kirol-jarduera bateragarriak izan daitezen egokiena den txanda, orduetgia edo taldea aukeratu ahalko dute.
- Lehiaketa ofizialetan parte hartzearen ondorioz curriculuma emateko derrigorrezko saioen gehienez ehuneko 25era arte egindako hutsegiteak



justifikatu beharko dituzte, eta, horretarako, dagokion kirol-federazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

- Azterketak egiteko egutegian malgutasuna izango dute, dagokion kirol-federazioaren ziurtagiriaren bidez justifikatutako lehiaketa ofizialekin bat datozenean.
- Bereziki, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeek goi-mailako kirolari diren ikasle adingabeen eskura jarri beharko dute irakasle bat, tutore akademikoa izango dela, eta beren ikasketetan laguntza eman eta jarraipena egingo duena. Irakaslea etengabe egongo da harremanetan kirolariaren gurasoekin edo tutoreekin.
- Era berean, goi-mailako kirolariek eskubidea izango dute goi-mailako eta errendimendu altuko kirolarientzat beste arau batzuetan aurreikusten diren hezkuntza-arloko onurak jasotzeko.

## **6.- Ezohiko curriculum-neurriak eskatzea**

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuan (EHAA, 1998ko uztailaren 13koa) eta hura garatzen duten aginduetan (EHAA, 1998ko abuztuaren 31koa) araututa daude. Aipatu araudia bete eta garatuz, horiek egiteko eta izapidetzeko epeak eta mugaegunak adierazi dira.

Gorreria duten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak egiteko, Sailak agiri bat dauka, irakasleentzat erreferentzia izan daitekeena: *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean*.

### **a) Lanbide Heziketako heziketa-zikloen iraupena malgutzea.**

Lanbide-heziketako heziketa-zikloetan, ziklo horien iraupena malgutzeko aukera aurreikusten da.

- Malgutze hori eskatu nahi duen ikastetxeko zuzendaritzak izapidetuko dio eskabidea Lanbide Heziketako lurralde-arduradunari.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak txostena emango du.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bidaliko du oniritzia.



- Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak ebatzi eta jakinaraziko die ikastetxeei aurkeztutako eskabidearen ebazpena.

#### **b) Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako aparteko neurriak.**

Ikaskuntza-prozesua, irisgarritasun unibertsalerako eskubidea eta HLBPak dituzten ikasleen aukera-berdintasunerako eskubidea errazteko, ikastetxe bateratuek honako neurri hauek hartuko dituzte:

- Azterketak, lanak, proiektuak eta abar egiteko denbora luzatzea.
- Idatzizko proben ordezkari probak egiteko aukera ematea.
- Lanbide-heziketako ikastetxe bateratuak proposatutako aparteko beste neurri batzuk, Plangintza eta Antolaketa zuzendariak baimendu beharko dituenak.

### **2.4.- IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK**

#### **1.- Ebaluazio-bilerak**

Ikastetxeek heziketa-zikloetako ikasleak ebaluatu beharko dituzte, xedapen hauek diotenarekin bat:

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (EHAA, 2008ko martxoaren 05ekoa), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua (EHAA, 2016ko otsailaren 10ekoa).

1997ko uztailaren 15eko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Berriazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio-prozesua arautzen duena (EHAA, 1997ko urriaren 03koa), 1998ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez aldatua (EHAA, 1999ko otsailaren 03koa) (LOGSE zikloak).

2010eko otsailaren 19ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (EHAA, 2010eko martxoaren 24koa).



Ikas-ekinezko araubideko lanbide-heziketa duala ikasten ari diren ikasleen kasuan, araudi zehatzean nahiz ikasleentzat onartutako planetan modalitate horretarako aurreikusitakoaren arabera egingo da ebaluazioa.

Lanbide-heziketa erronketan oinarritutako metodologia aktibo eta elkarlaneko berriekin egiten duten ikasleen kasuan, ebaluazioa modalitate horretan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

#### **a).- Ebaluazioari buruzko arau orokorrak**

Atal honek xedatzen duena aplikatuko da ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) ebaluazio-bilerei buruzko berariazko araudirik ezartzen ez duen gaietan.

#### ***.- Ebaluaziorako baldintzak***

Ebaluazio-bilera baliozkoa izateko, baldintza hauek bete beharko dira, gutxienez:

- Taldeko irakasle guztiak joan daitezkeen ordu batean egitea.
- Dagokion taldeko irakasle guztien bi herenek parte hartzea gutxienez.
- Irakasleek, behar den denboran eta moduan, tutoreen egoera-orrietan adieraztea modulu profesional bakoitzeko notak eta estatistikak, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehenago gutxienez, edota ikastetxeko zuzendaritzak ezarritako muga-egun edo -orduan, baita ikasketa-buruak eskatzen duen beste edozein datu ere.
- Tutoreak modulu bakoitzeko emaitzen txostena aurkeztea, baita ebaluazio-bileran aztertu beharreko gaien gidoia ere. Bileran aztertu beharreko gaien gidoia bileraren hasieran aurkeztu behar da, eta, hala badagokio, onartu.

#### ***.- Bilerako akta***

Ebaluazio-akta bat egin behar da ebaluazio-bilera bakoitzeko, eta aktak gai hauek adierazi behar ditu, gutxienez:

- Bertaratu diren irakasleen zerrenda, bakoitzaren sinadura jasota.



- Bertaratu ez diren irakasleen zerrenda, baimen egokia duten ala ez berariaz jasota.
- Modulu bakoitzean lortutako emaitzen eta izan diren arazoaren analisia.
- Taldearen egoera orokorraren analisia, bere eskolako emaitzen, jarreraren eta arazoaren arabera.
- Banakako arazoaren analisia eta errefortzurako neurri edo jarduerak.

Era berean, ikasketa-burutzak osatu beharko du ebaluazio bakoitzean modulu eta ikasle-talde bakoitzean eman ez diren saioen zerrenda, arazoak azalduta, eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta ikastetxeko Gizarte Kontseiluaren eskura utzi beharko du, haiek dagozkion ondorioak baloratzeko.

#### ***.- Ikasleek ebaluazio-bileran parte hartzea***

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du noiz sar daitezkeen ikasleen ordezkariak eta zer gaitan parte har dezaketen. Hala ere, ikasleen banakako ebaluazioa eta gai pertsonalak taldeko irakasleek bakarrik trata ditzakete.

#### ***.- Dokumentazioa***

Ebaluazio-bileren ondoren, ikasketa-burutzak tutoreen txostenak bildu beharko ditu, eta ikastetxeko Gizarte Kontseiluari aurkeztu. Haiekin batera, hauek aurkeztu beharko ditu: emaitzen estatistika, ikasleek eskoletara egindako hutsegiteen zerrenda, irakasleek egindakoena, eta Gizarte Kontseiluak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak dagokion aldia behar bezala ebaluatzeko beharrezko duten beste edozein datu.

## **2.- Eskola-errendimendua objektiboki baloratua izateko eskubidea**

Ikasle orok du eskola-errendimendua objektiboki baloratua izateko eskubidea. Hori horrela izan dadin, beharrezkoa da ikasleak, ikasturtearen hasieran gutxienez, jakitea zein diren modulu eta ikastaro bakoitzean ebaluazio positiboa izateko ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak eta eskatuko dizkieten gutxieneko helburuak eta emaitzak. Horrenbestez:



- Ikastetxearen Plan Exekutiboa eta sail profesionalen dokumentuek aipatutako gaien zehaztapenen eta irizpideen berri eman behar dute.
- Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) bermatu egin beharko du ikasleek eta beren legezko ordezkariak zuzendutako ariketak edo ebaluazio-prozesuan kontuan hartu diren beste proba batzuen agiriak ikusteko aukera dutela, bai eta horien kopiak eskuratzeko aukera ere. Halaber, Araudiak ikasleek erreklamazioak aurkezteko zein prozedura jarraitu behar duten zehaztuko du.

Irakasleek, ikasturte bakoitzaren amaieran, ikasleei azalduko dizkiete moduluetakoa bakoitza ebaluatu eta kalifikatzeko aplikatuko diren irizpideak, ikastetxeko sail egokiak onartuko dituenak.

Ikasleek eta, dagokionean, horien guraso edo legezko ordezkariak, beren eskolako emaitzen ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak eskuratu ahal izango dituzte behin zuzenduta daudenean, eta dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, baita horiek berraztertzea eskatu ere. Alde horretatik, zuzentzea ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, eskuratu diren eta ez diren gaitasun profesionalak adierazi behar dira, ikasleak egindako huts edo okerrak azaldu ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) ezarri behar du erreklamazioak aurkezteko prozedura, eta adierazi behar du zer epe eta baldintzetan egingo den berrikusketara, kontuan izanik ikastetxearen curriculum-proiektuak, programazioek eta jakinarazitako kalifikazio-irizpideek ere lotzen dituztela irakasleak, curriculum ofizialaz gain.

Lanbide-heziketako ikasleek ikasturteko edozein unetan ikusi ahal ditzaten probak, lanak eta ariketak, irakasleek ikastetxean eduki beharko dituzte, ikasturtea amaitu arte.

Ikasleek aukera izan behar dute ohiko eta ohiz kanpoko deialdien amaierako probak, edo horien ebidentziak ikusteko, eta ondoren dagokion sailean gorde behar dira, urtebetez. Erreklamaziorik edo errekurtsorik badago martxan, agiri horiek gordetzeko aldia kasuan kasuko erreklamazio edo errekurtsoa ebatzi arte luzatuko da.

Heziketa-zikloak egiten dituen ikaslearen salbuespenak, baliokidetasunak, baliozkotzeak eta korrespondentziak gaur egun indarrean dauden xedapenetan eta arauetan



xedatutakoaren arabera egingo dira. Nolanahi ere, Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetako zuzendaritzen eskura jartzen duen dokumentuan ezarritako jarraibideak jarraitu behar ditugu.

Salbuespenak balio du ondorio akademikoetarako. Modulu edo gai bat ikastetik askatzean datza, indarrean dagoen araudian jaso behar diren arrazoiengatik.

Honako modulu hauek salbuesten dira:

- LTP
- Ingeles teknikoa

Salbuetsi egiten da, halaber, enpresan edo erakunde parekatuan egindako prestakuntza-aldia, araubide orokorraren esparruan soilik. Horretarako, gutxienez 6 hilabeteko lan-esperientzia egiaztatu beharko da C eta E graduen kasuan, eta urtebetekoa edo baliokidea D graduen kasuan (uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 131. artikulua).

Baliokidetasunak ikasketa osoen arabera ematen dira. Aintzatespen publikokoak dira, BOEn argitaratzen direlako. Titulu batek (edo interesdunak gainditutako ikasketa-multzo batek) beste baten ondorio berberak dituela aitortzea da. Nolanahi ere, baliokidetasunak ez du egungo titulua edo baliokidea lortzeko eskubiderik ematen.

Baliokidetasunaren ondorioak:

- Lan-arlokoak. Berariaz aitortzen du prestakuntza batek lan-mundura sartzeko aukera ematen duela, baliokidea den beste baten parekoa.
- Akademikoak. Ikasketekin jarraitzeko, ikasketa-maila bereko tituluen arteko baliokidetasuna aitortzen da.

Unibertsitatez kanpoko atzerriko tituluak, diplomak edo ikasketak homologatzeak berekin dakar indarrean dagoen Espainiako hezkuntza-sistemako tituluekin baliokidetzat jotzea, ondorio akademiko eta profesional guztietarako. Erkidego honetan, Hezkuntza Saileko Ikasketen Antolamendurako Zerbitzuari eskatzen zaizkio





Baliozkotzeek ondorio akademikoetarako eta lan-ondorioetarako balio dute, eta, beraz, dagokion mailan sar daiteke hezkuntza-sisteman. Prestakuntza bat aurkeztutako beste batek gainditzen duela berrestean datza

Heziketa-zikloak osatzen dituzten lanbide-moduluak dira baliozkotzen direnak.

Honako hauen arteko baliozkotzeak eskatu ahal izango dira:

- Hainbat heziketa-ziklotako lanbide-moduluak.
- Heziketa-zikloetako beste irakaskuntza eta/edo egiaztapen batzuk eta lanbide-moduluak

Honako hauek ematen dira:

- Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariak ematen ditu, indarrean dauden arauetan aitortuta badaude (Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua. 27 bis artikulua eta abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 8.1 artikulua).
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak emango ditu gutxieneko irakaskuntzetan sartutako lanbide-moduluen baliozkotzeak, indarreko araudian jasota ez daudenak.

ECD/1055/2017 Agindua, urriaren 26koa, honako hau aldatzen duena: ECD/2159/2014 Agindua, azaroaren 7koa, Espainiako Hezkuntza Sistemaren lanbide-heziketako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak eta aplikazio-neurriak ezartzen dituena, eta Berriazko lanbide-heziketako ikasketen baliozkotzeak zehazten dituen 2001eko abenduaren 20ko Agindua —Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren ondorioa baita— aldatzen duena.

## LOGSE ZIKLOAK

LOGSEtik eratorritako zikloetako lanbide-moduluen balizko baliozkotzeak, LOGSEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gaindituz gero, abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotzen dira.

Erkidego honetako LOGSEren modulu espezifikoen kasuan (Hizkuntza Teknikoa eta KEHak), apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan adierazitako formulazio orokorra



aplikatuko da (1998ko maiatzaren 8ko BOE), izen, iraupen eta amaierako gaitasun berdineko moduluak baliozkotzeko irizpide orokor batera daramana.

LOGSEn babestutako erdi-mailako tituluetakoko LPOko lanbide-moduluak baliozkotu ahal izango dira LOEren erdi-mailako edo goi-mailako titulu bateko LPOko edozein modulu aurkezten denean (abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra, 1).

## LOE ZIKLOAK

2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako eskatutako baliozkotzeak arau hauetan adierazitakoaren arabera ebatziko dira:

- Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretua.
- 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, VI. kapituluko 1. atalean.
- EAEn, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren bidez eman da arau korrelatiboa, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua, 27 eta 27 bis artikulua.
- Arau horiez guztiez gain, titulu bakoitzak, bere araudi erregulatzailan, lanbide-moduluak baliozkotzea dakarten konpetentzia-atalak jasotzen ditu.

## OINARRIZKO GRADUKO LANBIDE HEZIKETA (OGLH):

Oinarrizko Lanbide Heziketan, arau hauek bete behar dira:

- 127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifikokoak arautzen dituen indargabetuta geratzen da, 1. artikulua b) apartatua eta I. eranskinetik XIV. eranskinera bitartekoak izan ezik, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarraren bidez..
- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa, uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan ezarritakoaren aurka ez doan ataletan..



### **3.- LOEk sortutako heziketa-zikloak, lehenengo ikasturtea komuna dutenak**

Ikasleak Hezkuntzari buruzko Estatuaren Lege Organikoak sortutako heziketa-zikloetako batean matrikulatzeko eskatzen badu, eta aurretik kode eta izen bera duen Estatuaren Lege Organikoko beste ziklo bateko moduluak gainditu baditu, eta, beraz, moduluok gaindituta bigarren ikasturtea egiteko moduan badago, 2010eko otsailaren 19ko Aginduan ezarritako promozio-baldintzen arabera, zuzenean emango du izena eskatutako zikloko bigarren ikasturtean.

Horretarako, honakoa izango da jarraitu beharreko prozedura:

- Ikasleak, izena emateko eskariarekin batera, aurretik egindako heziketa-zikloaren ziurtagiri ofizial akademikoa aurkeztuko du, eta, bertan, gainditutako moduluak agertuko dira.
- Matrikulazioaren aplikazio informatikoan bigarren ikasturtean emango du izena, heziketa-zikloko modulu GUZTIETAKO matrikula markatuta. Era berean, dagozkion moduluak aitortzea egokia dela egiaztatu denean, eta promoziorako baldintzak betetzen dituela berresten bada, dagokion pantailan adierazi beharko da dagozkion moduluak gainditu dituela, eta, hala, ikaslea bigarren ikasturtean era egokian matrikulatzen dela berretsiko da. Era berean jokatu da bigarren ikasturtean gainditu diren moduluekin, baliozkotu direnekin, eta abar.
- Laneko Prestakuntza eta Orientabidearen (LPO) moduluak eta Enpresa eta Ekimen Sortzailearen (EEE) moduluak baliozkotzeko, pertsona interesdunak dagokion eskaria egin ahalko du.
- Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, kode berak, izendapen berak, amaierako gaitasunak edo ikaskuntzaren emaitzak, edukiak eta iraupena dituzten lanbide-moduluak modulu berdintzat hartuko dira, edozein heziketa-ziklotakoak direla ere, eta gainditutako lanbide-moduluetan lortutako kalifikazioak modulu horiek sartuta dauden edozein ziklotara eramango dira. Ondorioz, ez da CV jaso beharko, baizik eta hura gainditu izana.
- Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeko ziklo bateko moduluak gainditu dituzten ikasleak Hezkuntzari buruzko Estatuaren Lege Organikoko ziklo batean izena emateko eskatzen badute, baliozkotzea eskatu ahal izango dute.



- Ikasleek lehenengo ikasturtean gainditu ez dituzten moduluak badituzte eta zuzenean bigarren ikasturtean izena ematen badute, ikastetxeak egoera hori kontuan izan beharko du, eta, beraz, ikasleei gainditzeke dituzten modulu horien ebaluazioa egingo zaie bigarren ikasturteko lehenengo ebaluazioan.

#### **4. Unibertsitaterako sarbide-probak**

Hezkuntza-babeseko beharrizan bereziak dituzten ikasleek egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, sarbide-probak egiteko orduan. Sarbide-probetarako egokitzapen motak ikusteko, EHUren webgunerako lotura hau erabil daiteke:

Bigarren hezkuntzako ikastetxeen eskaeran jaso beharreko txostenen eredua

#### **5.- Proiektu-modulua**

Heziketa-zikloan zehar eskuratutako ahalmenak eta kompetentziak integratzea da proiektu-moduluaren helburua, eta, horretarako, zeharkako kompetentziak (esate baterako, talde-lana, ekimena, erantzukizuna eta komunikazio-estrategiak) garatzen laguntzen duten metodologiak erabiliko dira.

Proiektu-modulua heziketa-zikloaren azken zatian egingo da, eta indibidualki kalifikatuko da, Lantokiko Prestakuntzako (LP) lanbide-modulua edo parekatutako enpresa edo erakunde bateko prestakuntza-aldia egin ondoren, horren ebaluazioaren emaitza edozein dela ere. Enpresan egindako praktikaldian eskuratutako kompetentziak modulu horretan sartu ahal izatea da helburua. Oro har, Lantokiko Prestakuntzaren edo parekatutako enpresa edo erakunde bateko prestakuntza aldi berean izan daiteke. Baina beste aldi batzuk ere ezarri ahal izango dira, betiere metodologia- edo antolamendu-proiektuetan justifikatzen badira. Halako kasuetan, aldi berri horiek onartu eta ikastetxearen Plan Exekutiboan jaso beharko dira.

Lan-eskarmentua izateagatik LPko modulua edo parekatutako enpresa edo erakunde bateko prestakuntza Dual General modalitatean egitetik guztiz salbuetsita geratzearen kasu berezian, ikastetxean 1. eta 2. mailetako modulu guztiak gainditzen dituztenean egin dezakete ikasleek proiektu-modulua.



LPko modulua egiteari uko eginez gero, proiektu-modulua ezin izango da ebaluatu LP modulua bukatu arte.

Lanbide-heziketako ikastetxeek beren ikastetxearen Plan Exekutiboan adierazi beharko dituzte goi-mailako heziketa-zikloetan proiektu-modulua gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko irizpide orokorrak. Irakasleen klaustroari dagokio irizpide horiek onartzea.

Irizpide orokor horiek zehaztu egin beharko dira, eta sail bakoitzeko programazioetara eraman, sailaren barruan onartu ondoren. Sail profesional bakoitzeko burutzak arduratuko dira onartutako irizpideak behar bezala aplikatzeaz. Ikasketa-burutzak gainbegiratu du ikasleen proiektuen garapena, eta berak konponduko ditu garapen horretan sor litezkeen gertakizunak.

Ikastetxeko irakasleek ikasleen jarraipena eta tutoretza egiteko ereduak jaso beharko da onartutako irizpideen artean. Lanbide-heziketako ikastetxeek ikasleei ikastetxean arreta eskaintzeko eredu bat aurreikusi ahal izango dute, datetan bat datorrena proiektu-moduluarekin eta LPrekin edo parekatutako enpresa edo erakunde bateko prestakuntza Dual General modalitatearekin.

Proiektuak banaka edo taldeka egin daitezke, heziketa-ziklo bakarrerako edo batzuetarako, inplikaturako didaktika-sailarekin adostu ondoren. Halaber, hainbat ikastetxeren artean zehatz daitezke, heziketa-ziklo bera edo beste bat dutenen artean. Zikloko beste modulu batzuekin ere lotu ahal izango dira, eta, horrela, proiektuetan oinarrituta dauden ikasketa-metodologia globalagoak garatuko dira. Ikasle bakoitzak bere heziketa-zikloari buruzko alderdiak landu beharko ditu proiektuan.

Heziketa-zikloaren esparruko lan-jardueraren ezaugarrien arabera zehaztuko da proiektuaren lanbide-modulua. Heziketa-zikloko kompetentziak eta ezagutzak uztartzea izango du helburu, eta tituluarekin lotutako teknologia- eta antolaketa-aldagaiak hartuko ditu kontuan.

Didaktika-sailak egin eta onartuko ditu proiektuak zehazteko irizpideak, eta tutoreak esleituko dizkie proiektuak ikasleei. Erabaki horiek akta batean jasoko dira, eta ikastetxeko ikasketa-burutzari igorriko zaio akta hori.

Proiektu-modulua banakako edo taldeko tutoretza oinarri hartuta antolatuko da. Modulu horretan, irakasteko gaitasuna duten eta tutoretza esleitu zaien irakasleek



emango dute tutoretza hori, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideetan oinarrituz.

Heziketa-ziklo bakoitzean proiektu-modulua egin behar duten ikasle guztientzat egingo da taldeko tutoretza; taldeko tutoreak egingo du. Proiektu-moduluaren helburuei, proiektu-motei eta ikasleek modulua ondo egiteko beste informazio garrantzitsu batzuei buruz orientatzea du helburu tutoretzak.

Banakako tutoretzan, ikaslea orientatuko da, aholkuak emango zaizkio eta proiektua bideratuko da. Hala dagokionean, banakako tutoreak koordinatuko d(it)u proiektuan lankide d(ir)en enpresa(k), proiektua enpresen laguntzarekin egitea erabaki bada. Ikastetxeek tutoretza horren arretarako aurrez aurreko eskola-aldiak ezarriko dituzte, xede horretarako emandako ordu-kredituaren edo zuzendaritza-taldeak esleitutako beste edozeinen kontura. Lantokiko prestakuntza egiteko aldi edo prestakuntza Dual Orokorra modalitatean parekatutako enpresa edo erakunde batean, ikasleak ikastetxera joan beharreko egunetan izan daiteke (martxotik ekainera bitartean, adibidez). Beharrezkoa balitz, komunikazio telematikoaren bidez osa daiteke ikasleen aurrez aurreko tutoretza.

Lanak ikasleenak izango dira, ez beste inorenak; baina emandako materialen kopia bat gordeko du ikastetxeak, eta eskolak emateko erabili ahal izango da.

Baldin eta ohikoak ez diren aldiak baimentzen badira LPko modulua egiteko, ikastetxeko zuzendariak egokitu egingo ditu proiektu-modulua egiteko eta ebaluatzeko epeak.

## **2.5.- LANBIDE-HEZIKETA DUALA ETA LP MODULUA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen funtsezko helburu estrategikoa da lanbide-heziketa duala bultzatzea eta garatzea, eta Euskadin ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala deitu zaio horri.

Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Legeak (2022-04-01eko BOE), besteak beste, honako artikulua hauek ezartzen ditu:



- III. tituluan, «Lanbide Heziketaren izaera eta modalitateak»:
  - 55. artikulua (1. puntua): Konpetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalari lotutako C eta D graduetako lanbide-heziketako eskaintza guztia duala izango da, eta enpresan edo erakunde parekatuan prestatzeko fase bat txertatuko da. E Graduako Espezializazio Ikastaroen eskaintza bikoitza izango da, 52. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzetan. A eta B Graduaren eskaintzak izaera hori izan dezake edo ez, prestakuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera.
  - 65. artikulua (1. puntua): Lanbide Heziketako C, D eta, hala badagokio, E mailako eskaintza guztiak, Lanbide Ziurtagiri bat, Lanbide Heziketako Titulu bat, Espezialista Titulu bat edo Lanbide Heziketako Master bat egitera bideratutakoak, bi eskaintza-erregimenetako baten pean egingo dira, modu dualean, dela orokorra, dela intentsiboa.
- Seigarren xedapen iragankorrean – Enpresako prestakuntza-aldia egokitzea –: *“Aldi iragankor bat gaitzen da **2024ko abenduaren 31ra arte**, enpresako prestakuntza-aldiaren egungo iraupena Lanbide Heziketako eskaintza bakoitzerako lege honetan aurreikusitakora egokitzeko”.*
- Halaber, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du seigarren xedapen iragankorrean: *“**2024ko abenduaren 31ra arteko aldi iragankor bat gaitzen da, enpresako prestakuntza-aldiaren egungo iraupena Lanbide Heziketaren antolamenduari eta integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoan eta errege-dekretu honetan Lanbide Heziketako eskaintza bakoitzerako aurreikusitakora egokitzeko. Errege-dekretu hau argitaratu aurretik argitaratutako deialdien kasuan, deialdi horietan ezarritako aldiari jarraituko zaio**”.*
- Aipatutako 659/2023 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du bosgarren xedapen iragankorrean: *“Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua garatu eta lanbide-heziketa dualaren oinarriak ezartzen dituen azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuaren araudiak **2028ko abenduaren 31ra arte** iraungo du aldi baterako, Lanbide Heziketa antolatu eta integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa indarrean sartzean aplikatzen ari zen eremuetan. Hori guztia, hargatik eragotzi gabe urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen*



*testu bateginaren 11. artikuluan aurreikusitako txandakatzeko prestakuntza-kontratuak egiteko aukera".*

Beraz, 2023-2024 ikasturte honetan, trantsizio-aldi horretan gaude, eta horrek berekin dakar Lantokiko Prestakuntzako modulua eta ikas-ekinezko erregimeneko gure lanbide-heziketa dualaren eredua eraldatzea, 3/2022 Legean eta 659/2023 Errege Dekretuan ezarritako prestakuntza dual orokorraren eredura eta prestakuntza dual intentsiboaren eredura.

2021-2022 ikasturtean, LHko ikastetxe integratuetan (publikoetan zein pribatu eta itunduetan) modalitate dual berri bat ezartzen hasiko gara, eta 2023-2024 ikasturtean zehar jarraituko dugu, lehen aipatutako legera egokitzeko aukera emanaz.

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak gida bat argitaratuko du, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan enpresa edo erakunde parekatuaren prestakuntzari buruz ezarritakoarekin batera, lanbide-heziketa dualaren eredu berria ezartzen laguntzeko. Gida hori irailean egongo da ikastetxeen eskura.

Gainera, trantsizio-aldi horretan, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra, lantokiko prestakuntza modulua eta ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala arautzen dituzten dekretuak betetzen jarraitu behar dugu, honako figura hauei dagokienez:

### **1.- Lantokiko Prestakuntzako Koordinatzailea.**

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorrari buruzkoa, non ezartzen baitira hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa Euskal Autonomia Erkidegoan garatzeko antolamendua eta araudia eta hura garatzeko jarraibideak, bat etorri ezarritako legeriarekin. Dekretu horren 20. artikulua araberak, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa ematen duten ikastetxe guztiek izango dute Lantokiko Prestakuntzako koordinatzaile bat. Koordinatzaile horren eginkizun nagusiak honakoak izango dira:

- Ikastetxearen eta lantokiaren arteko harremanak ezartzen eta garatzen laguntzea.
- Ikastetxeko Lantokiko Prestakuntzako moduluen tutoreen ekintzak koordinatzea.





Eginkizun horiek 156/2003 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoarekin osatzen dira (156/2003 Dekretua, uztailaren 8koa, Lanbide Heziketako Heziketa-zikloen barruko Lantokiko Prestakuntzako (LP) modulua egiteko modua arautzen duena).

Lantokietako praktiketako koordinatzaileari dagokionez ezarritakoa betetzeko, jarraibide hauek ezartzen dira::

1. 2. mailako 10 talde edo gehiago dituzten ikastetxe bateratu guztiek koordinatzaile bat eduko beharko dute. Figura horrek ematen diren zerbitzuen kalitatea bermatzeko behar beste baliabide izango ditu.
2. 2. mailako 10 talde baino gutxiago dituzten ikastetxe integratuetan, Lantokiko Prestakuntzako tutoreek bete ahal izango dituzte koordinatzailearen funtzioak. Tutore horiek lan bikoitz hori egiteko behar beste baliabide izango dituzte, ematen dituzten zerbitzuen kalitatea bermatzeko.

## **2.- Lanbide Heziketa DUALEKO koordinatzaile nagusia**

Ikastetxeek prestakuntza dualaren koordinatzailea sortu ahal izango dute, eta honako eginkizun nagusi hauek izango ditu:

- Ikastetxearen eta lantokiaren arteko harremanak ezartzen eta garatzen laguntzea.
- Ikaskuntza-prozesuan lagunduko dieten ikasleen tutoreen ekintzak koordinatzea.

## **3.- Lantokiko Prestakuntzako edo prestakuntza enpresan edo erakunde parekatuko tutorea**

Aipatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 20. artikuluan, orobat ezartzen da nahitaezkoa dela hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa ematen duten ikastetxe guztietan Lantokiko Prestakuntzako moduluaren tutore bat egotea.

Aipaturiko 156/2003 Dekretuaren 11. artikulua, berriz, ezartzen du zein izango diren Lantokiko Prestakuntzako tutoreen eginkizun nagusiak:



1. Lantokiko Prestakuntzako modulua txertatuta dagoen arloaren edo curriculumeko irakasgaiaren programazio globala egitea, dagokion ingurune produktiboaren ezaugarrietara egokituz.
2. Enpresan Lantokiko Prestakuntzako modulua egiten duten ikasleentzat prestakuntza-programa bat garatzea eta koordinatzea, prestakuntza- eta jarduera-multzo bat bezala, espazioan eta denboran antolatuta, lantokiko instruktorearekiko lankidetzan.
3. Lantokiko Prestakuntza ebaluatzeko irizpideak ezartzea.
4. Lantokiko Prestakuntzako modulua behar bezala garatzen den balioestea eta gainbegiratzea, aldi-aldi enpresara bisitak eginez eta eginkizun horretarako aurreikusitako bestelako baliabideak erabiliz.
5. Lantokiko instruktorearekin bilerak egitea, Lantokiko Prestakuntza egin aurretik, egiten den bitartean eta egin eta gero, eta prestakuntza horren garapenari buruzko informazio globala biltzea.
6. Lantokiko Prestakuntza egiten duten ikasleekin bilerak egitea, prestakuntza egin aurretik, egiten den bitartean eta egin eta gero, eta enpresa bakoitzeko prestakuntzaren garapenari buruzko informazioa lortzea.
7. Ikaslearen Lantokiko Prestakuntzako koaderno gainbegiratzea.
8. Lantokiko Prestakuntzako modulua ebaluatzea eta kalifikatzea, instruktorearen txostena aintzat hartuta.

Lantokiko Prestakuntzako moduluaren tutore-figura lanbide-heziketako espezialitateetako irakasleek beteko dute, zehazki prestakuntza-zikloko kompetentzia-atale lotutako lanbide-arloko moduluetakoa irakasleek.

Lantokiko Prestakuntzako edo prestakuntza enpresan edo erakunde parekatuan moduluko tutoreari dagokionez ezarritakoa betetzeko, honako jarraibide hauek ezarri dira:



1. LPko edo prestakuntza enpresan edo erakunde parekatuan modulua egiten duten ikasleek erreferentziatzeko tutore bat izango dute, programaren funtzionamendu ona zainduko duena.
2. LPko edo prestakuntza enpresan edo erakunde parekatuan tutoreak irakasleak izango dira, zehazki beren tutoretza pean izango duten ikasleak parte hartzen duen taldean tituluaren konpetentzia-atalei lotutako moduluak ematen dituztenak.
3. Ziurtatuko da ikasle bakoitzeko hiru bisita egiten direla gutxienez enpresara (LPren edo prestakuntza enpresan edo erakunde parekatuen hasieran, prestakuntza egiten ari den bitartean eta bukaeran).

#### **4.- LH Dualeko tutorea (erregimen orokorra eta intentsiboa)**

Figura horren eginkizun nagusiak honako hauek dira:

1. Ikastetxeak enpresa laguntzailearekin duen komunikazioa.
2. Enpresako tutorearekin batera, bete beharreko prestakuntza-plazak zehaztea.
3. Prestakuntza-jarduerarako akordioa egitea, bai eta horren jarraipena egitea ere, enpresako tutorearen laguntzarekin.
4. Prestakuntza dualeko prestakuntza-programa egiten laguntzea, enpresako tutorearekin, saileko buruarekin, hala badagokio, eta lanbide-heziketa dualeko zikloan irakasten duten ikastetxeko gainerako irakasleekin batera.
5. Prestakuntza- eta ebaluazio-jardueren jarraipena koordinatzea.
6. Ikasleei jakinaraztea modalitate honen ezaugarriak, enpresa laguntzaileen ezaugarriak, garatu beharreko prestakuntza-programa eta ikasleek enpresan dituzten eskubideak eta betebeharrak.
7. Prestakuntza-jarduerarako akordiotik eratorritako ekintzak gauzatzeko behar den dokumentazioa kudeatzea.
8. Ikasle-taldeko tutore gisa esleituta dituen beste edozein zeregin, bai eta



ikastetxeko zuzendaritzak esleituta dituenak ere, bere eskumen-eremuan, modalitate horrek eginkizun horiek hobeto garatzeko eta burutzeko eskatzen duenean.

Figura horiek guztiek enpresak eta lantokiak bilatzeko ere lan egin beharko dute, DUAL Orokorra modalitate berria ezartzen den ikastetxe/taldeetan, 1. mailako ikasleek prestakuntza egin ahal izan dezaten parekatutako enpresa edo erakundean, 1. mailako 1. hiruhilekotik aurrera.

Ikasgelan moduluak emateari utzi dioten irakasleek egingo diote ikasle horien jarraipena enpresa edo erakunde parekatuan, eta lantokiko prestakuntzako edo enpresa edo erakunde parekatuko prestakuntzako tutoreen laguntza izango dute.

### **Ohar orokorrak.**

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak "Enpresako edo Lantokiko Prestakuntzaren Kudeaketa eta Tutoretza" kontzepturako ikastetxeari esleitutako ordu-poltsa aurreikusi eta banatuko du, lehentasunez enpresa edo erakunde parekatuko prestakuntzaren kudeaketan, koordinazioan eta tutoretzan parte hartzen duten figuren artean. kudeaketan, koordinazioan eta tutoretzan parte hartzen duten pertsonen artean. Kontuan izan behar dugu, halaber, badirela LP modulua edo enpresa edo erakunde parekatuko prestakuntza, atzerriko beste herrialde batzuetan egiten duten ikasleak, eta, beraz, baliabide global horren zati bat Erasmus+ programaren arduradunari eta ikasle horien tutoreei esleitu ahal izango zaiela.

Lantokiko Prestakuntzaren eta ikas-ekinezko erregimeneko Prestakuntza Dualaren tutoretzaren kasuan, erregimen orokorrean zein trinkoan, bisita-plana eta ordutegi hori erabiltzeko plana aurkeztu beharko zaizkio ikasketa-buruari, behar besteko aurrerapenarekin. Lantokiak ikastetxetik urrun dauden kasuetan, jarraipena komunikazio-bide seguruak eta egiaztagarriak erabiliz bermatuko da. LPren aldia edo erregimen Orokor edo Intentsiboan parekatutako enpresa edo erakunde bateko prestakuntzaren aldia amaitzean, tutore bakoitzak memoria bat aurkeztuko du, tutoretza-lanean egindako jardueraren jarraipena eta ebaluazioa jasoko dituen..

Ikasleek enpresa edo erakunde parekatuanformazioa hasten diren unetik aurrera, tutorearen zeregin nagusia aipatutako ikaskuntzaren jarraipena egitea da. Aldi horretan, ikastetxeko zuzendaritzak beste jarduera batzuekin osatu ahal izango du jarraipen-lana,



betiere Lanbide Heziketari buruzkoak badira eta beharrezkotzat jotzen baditu ikastetxearen estrategia Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin lerrokatzearen ondoriozko erronkei erantzuteko.

## **2.6 ERRONKETAN OINARRITUTAKO LANKIDETZAKO IKASKUNTZAREN EREDUA.**

2012-2013 ikasturteaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak metodologia aktibo-kolaboratiboetan oinarritutako eredu baten diseinua bultzatu du.

Eredu honen helburu nagusia da ikasgelan ikaskuntza-testuinguru berriak txertatzea, ikasleek ikaskuntza-prozesuan gaitasun profesionalak hobeto garatzeko aukera izan dezaten, bai gaitasun teknikoei dagokienez, bai zeharkakoei dagokienez, Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 Legean eta LHko azken euskal planetan jasotzen den bezala.

Aldaketa horren funtsezko proposamenetako bat erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza da. Ikaskuntza hori curriculumean integratutako benetako erronkak egitean datza, eta emandako moduluak lotu egiten dira eta erronka osoan planteatutako helburuak lortzearen mende jartzen dira (ikaskuntzaren emaitza teknikoak eta zeharkakoak).

### **1. Hartzailleak.**

Antolamendu pedagogiko hau eskaintza osoko modalitate presentzian matrikulatuta dauden ikasleei zuzenduta dago.

Ikastetxeek publiko egin beharko dute ikaskuntza-eredu horren erabilera, ezarrita dagoen zikloetan.

### **2. Ezauzarriak**

Heziketa-zikloak elkarlaneko ikaskuntza aktiboko eredu bidez ematen dituzten ikastetxeek Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren jarraibideak beteko dituzte. Jarraibide horiek arautzen dute ikaskuntza-eredu horren ezarpena, eta irailan egongo da ikastetxeen eskura. Jarraibide horietan, besteak beste, honako hauek ezartzen dira:



- a) Proiektu Estrategikoan eta Plan Exekutiboan agertu beharko duen ezarpena planifikatu behar du ikastetxeak.
- b) Eredua ezarri den zikloetako programazio kurrikularren eta didaktikoen beharrezko egokitzapena.
- c) Ebaluazio-sistema.
- d) Gaitasunen garapena planifikatzea.
- e) Bertaratze-hutsegiteak arautzea.
- f) Erronkaren zehaztapenak.
- g) Antolamendu-alderdiak

## **2.7 LANBIDE HEZIKETAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK.**

### **1. Espezializazio-ikastaroen xedea.**

Espezializazio-ikastaroen helburua da lanbide-heziketako titulu bat dutenen edo ikastaro bakoitzerako zehazten diren sarbide-baldintzak betetzen dituztenen gaitasunak osatzea eta sakontzea.

### **2. Espezializazio-ikastaroak emateko plangintza.**

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ezarriko ditu, ikasturte bakoitzaren plangintza egiteko unean, ezarriko diren espezializazio-ikastaroak eta sare publikoko eta/edo sare pribatu-itunduko ikastetxeak.

### **3. Espezializazio-ikastaroen ezaugarriak**

Espezializazio-ikastaroak ematen dituzten ikastetxeek Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren jarraibideak beteko dituzte. Jarraibide horiek arautzen dute ikastaro horien ezarpena, eta irailean egongo dira ikastetxeen eskura. Horietan, besteak beste, honako hauek ezartzen dira:



- a) Espezializazio-ikastaro osora sartzeko baldintzak.
- b) Izaera modularra; araubide presentzian, eskaintza osoko modalitatean, goizeko edo arratsaldeko txandan eta, ahal dela, Lanbide Heziketa Dualaren modalitatean ezarriko dira.
- c) Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzaren edo goi-mailako hezkuntzaren parte izatea.
- d) Sartzeko eskatzen diren tituluetan jasotako kompetentzia profesionaleko estandarrekin edo beste batzuekin lotuta egon ahal izango direla.
- e) Prestakuntza-jarduera nola garatuko den.
- f) Denboran zehar eskaintza "EZ IRAUNKORRA" izatea.
- g) Urteko iraupena.
- h) Dagokion lanbide-profileko Espezialista titulua edo Lanbide Heziketako Master titulua lortzea.
- i) h) Ebaluatzeko irizpideak.



### III. IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA PLAN EXEKUTIBOAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak (EHAA, 2008ko maiatzaren 19koa) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden prestakuntza-, kirol- eta kultura-jardueretarako zein izaera sozialeko bestelako jardueretarako Administrazioak eta ente publikoek edota edozein pertsona fisikorik zein juridikoak erabiltzeko prozesua arautzen du.

Dekretuaren artikuluek zehazten dituzte, besteak beste, jardueren ezaugarriak, instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskabideak egiteko eta baimenak emateko ohiko prozedura laburtua.

Gogoratu behar da ikastetxeek Dekretu horretan ezartzen den araudia bete behar dutela.

### IV. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko hainbat eragilek eskola-bizitzan parte hartzeak eta laguntzeak bereziki ikasleen osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako zenbait alderdi nahitaez arautzeko eskatzen du, eta ikastetxean biltzen den kolektibo osoarena ere bai.

#### a).- Osasuneko larrialdi-egoerak ikastetxeetan

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastegiko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu behar dute, eta han emango dizkiete zer egin behar duten jakiteko jarraibideak.

#### b).- Osasun-arreta eskola-orduetan

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Jaurlaritzako Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabaki zuen jarduera-protokoloa beteko da: Eusko Jaurlaritza (2006). [Eskola-orduetako osasun-arretarako protokoloa](#).





<https://www.euskadi.eus/langile-lapz-segurtasuna-lan-istripuak/web01-a2hsprl/eu/>

### **c).- Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua**

Ikastetxe batera sartzen diren ibilgailu guztiak ikastetxeko zuzendaritzak baimendu beharko ditu.

Sartzeko baimena izanda ere, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean eta jolasaldietan sartu. Gainera, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita seinaleztatzea ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak ezagutuko dute.

Ohiz kanpoko egoera batean sartzen bada ikastetxera, ikastetxeko zuzendaritzak edo haren ordezkariak ibilgailuari lagundu behar diote.

### **d).- Obrak**

Agian eskola-ordutegian obrak egin beharko dira ikastetxe batean.

Obra batzuen proiektuak segurtasun- eta osasun-azterketa bat hartzen du barnean. Edonola ere, alde batera utzita obrek segurtasun-planik duten ala ez, agindu hauek bete behar dira:

.- Obra-eremua eta irakaskuntza-gunea erabat bereiztea.

Horretarako, zera egin behar da:

- Obra-eremua erabat hesitzea.
- Obrakoak bakarrik diren ibilgailuak eta langileak sartzeko bideak sortzea.
- Obrakoa ez den pertsona orori sartzea galarazteko kartela.
- Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzeko galarazteko kartela.



.- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obra-eremuan ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi guneek argi eta garbi bereizita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzaren eskura ere jarriko da.

.- Obretako ibilgailuak eskola-gune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak betiere izan beharko ditu langileak, sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna bermatzeko.

#### e).- Tabakoa eta edari alkoholdunak

Ikastetxeko zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da, ikastetxeetan, ikasleak eta irakaskuntza mota alde batera utzita, tabako eta edari alkoholdunen espedizioa eta kontsumoa debekaturik baitaude.

#### f).- Eskolako laborategien erabilera

Laborategietako jardunak ikasleen adinaren eta gaitasun-mailaren arabera izan behar du, baita instalazioen baldintza teknikoaren arabera ere. Pertsonen segurtasuna bermatu behar da betiere, eta indarrean dauden protokoloek agintzen dutena betetzea.

### V. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAREN ARAUDIA

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio guztia <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-sprl/eu/> webgunean dago, Prebentzio Zerbitzua atalean, eta prebentzio-zerbitzuko teknikariei ere kontsulta egin dakieke.

LURRALDE HISTORIKOA	GUNEA	TELEFONO-ZENBAKIA
ARABA	1. GUNEA	945 01 84 51
BIZKAIA	1. GUNEA	94 403 11 92
	2. GUNEA	94 403 11 93
	3. GUNEA	94 403 11 93
	4. GUNEA	94 403 11 92
GIPUZKOA	1. GUNEA	943 02 31 74
	2. GUNEA	943 20 84 44 181 luz.



## **SEGURTASUNEN LAGUNTZAILEA**

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio Zerbitzuak egiten dizkion bilera-deietara joateko, irakasle horren ordutegian ahal dela ez da jarriko irakaskuntza-dedikazioko ordurik astearteetan, 8:00etatik 11:00etara.

Lanari jarraipena ematearren, komeni da laguntzaile hori ikastetxean nolabaiteko iraunkortasuna duen langile bat izatea.

## **IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA PREBENTZIO-ARLOAN**

Hezkuntza Sailak prebentzio-arloko prestakuntza emateko duen betebeharra betetzeko (31/1995 Legearen 19. artikulua) eta langileek lege horren 29. artikulua betetze aldera, irakasleen prestakuntza-orduetatik urtean gutxienez 2 ordu gordeko dira prestakuntza horretarako. Prebentzio-zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du prestakuntza, behar den aurrerapenarekin zehaztutako egun eta orduetan.

## **LARRIALDI-SIMULAKROAK**

Urtean behin nahitaez egin beharrekoa denez, ikastetxearen Plan Exekutiboan sartu behar da.

Ikastetxe guztietan egingo da, gutxienez urtean behin, eta, ahal izanez gero, ikasturtearen hasieran.

Simulakroaren ebaluazioa bidaltzeko bide bakarra dago: Segurtasuna-Larrialdiak atalean prestatutako web-formularioa erabili behar da.



### **BOTIKIN ERAMANGARRIA**

Lantokietarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-arauak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituena: desinfektante eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak, eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta, iraungi edota erabili bezain laster, berria jarriko da.

Eskatu eta birjartzeko:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-sprlcont/eu/contenidos/informacion/gestion\\_procedimientos/eu\\_sprl/adjuntos/Botiquines\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-sprlcont/eu/contenidos/informacion/gestion_procedimientos/eu_sprl/adjuntos/Botiquines_e.pdf)

### **LAN-ISTRIPUAK**

Osasun-asistentzia eta haren jakinarazpena dokumentu honetan emandako eskemaren arabera egingo dira: Nola jokatu lan-istripuetan

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accidentes\\_trabajo/eu\\_sprl/adjuntos/Notificacion\\_accidente\\_laboral\\_23\\_24\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accidentes_trabajo/eu_sprl/adjuntos/Notificacion_accidente_laboral_23_24_e.pdf).

Ikastetxeko zuzendaritzak istripu guztien erregistro bat eramango du, bajak sortu ala ez.

Ikastetxeko langileei egindako erasoak, nahita edo nahi gabe eginak, lan-istripuzat joko dira, eta erregistroan jasoko.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, ikastetxean gertatutako istripuen erregistroa zein gorabeheren erregistroa eska daitezke.

**LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Informazioa emateko eta erregistratzeko prozedurari jarraikiz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko langile guztiei Ikastetxeko Lanpostuaren Lan Arriskuen Ebaluazioa eta Larrialdi eta Ebakuazio Plana emango dizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 21ean.

Jorge Arévalo Turrillas,  
LANBIDE-HEZIKETAKO SAILBURUORDEA